

Atzera begira

AURRERA EGITEKO

1991-1996

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



AURKIBIDEA

0.- SARRERA	6
I.- ZER LORTU DUGU BOST-SEI URTEOTAN?	8
1. Orokorrean	10
1.1. Elkartea bizirik mantentzea	10
1.2. Jende eta ideia berriak	10
1.3. Izena eta izana berreskuratzea	10
1.4. Lehengo prestigioa berreskuratzea	11
1.5. Gizartearen erdigunean jartzea	11
1.6. Erdigunean alde guztietara iristeko	12
1.7. Atomizazioa frenatu dugu?	12
1.8. Elkartearen heldutasuna	12
1.8.1. Ezagunak	13
1.8.2. Errezelarik ez	13
1.8.3. Euskalgintzaren bilgune	13
2. Proiektu bakoitzarekin	14
2.1. Kultur eskaintza	14
2.1.1. Mahaingurua	14
2.1.2. Ikuskizunak	14
2.1.3. Hitzaldiak	15
2.1.4. Ikastaroak	15
2.1.5. Bertso mundua	15
2.1.6. Lehiaketak	15
2.1.7. Ohitura zaharrak	16
2.1.8. Argitalpenak	16
2.1.9. Bestelakoak	16
2.1.10. Gogoeta	17
2.2. BARREN astekaria	18
2.2.1. Zer lortu dugu?	19
2.2.2. Zertarako da BARREN?	20
2.2.3. Nolakoa izan behar du BARRENEk?	21
2.3. Aisialdi proiektua	21
2.3.1. Orain arte lortu duguna	21
2.3.2. Zer lortu nahi dugu aurrerantzean	22

2.4. GUREAN BAI Hitzarmena	23
2.4.1. Zer lortu dugu orain arte?	23
2.4.2. Zer lortu nahi dugu?	23
2.5. IDAZKARITZA	24
2.5.1. Soziolinguistika ikastaroa	24
2.5.2. Izarren Hautsa Berripapera	24
2.5.3. Ikerketa soziologikoa	25
2.5.4. Elkarlana: Udala eta Elkartea	25
2.5.5. 'Alkate eta zinegotzien ejemplua nahi dugu'	26
2.5.6. 'Dudaripe!' kanpaina	26
2.5.7. '1000 baietz!' kanpaina	26
2.5.8. Langileei buruzko txostena	26
2.6. NAZIO MAILAKOAK	27
2.6.1. Ikastolen aldeko autobusak	27
2.6.2. Euskaldunon Egunkaria	27
2.6.3. Euskara Elkarteen Topagunea	28
II.- ORAIN ARTEKO BALIABIDEEN AZTERKETA	29
1. Baliabide pertsonalak	30
1.1. Hiru lagun hasieran	30
1.2. Zortzi lagun Talde Eragilean	30
1.3. Behin-behineko Zuzendaritza Batzordea	30
1.4. Elkartearen aurpegi berria	31
1.5. 92ko jendea	32
1.6. 93ko jendea	33
1.7. 94ko jendea	34
1.8. 95eko jendea	35
1.9. 96ko jendea	36
1.10. Militante-kolaboratzaile zerrenda	38
1.11. Gogoeta	39

2. Baliabide ekonomikoak	40
2.1. Datuak	40
2.2. Gogoeta	41
3. Infrastruktura eta materiala	42
3.1. Datuak	42
3.2. Gogoeta	43
III.- NOLAKOA IZAN DA FUNTZIONAMENDUA?	44
1. Bazkideen urteko Batzar Orokorra	45
2. Eremu Sinbolikoaren batzarra	45
3. Zuzendaritza Batzordea	46
4. Lantaldeak	46
5. Segimendurako Batzordea	48
6. Profesionalak eta militanteak	48
7. Profesionalak	49
8. Militanteak	49
9. Informazio trasmisioa	50
9.1. Elkartetik herritarrengana	51
9.1.1. Bazkideak	51
9.1.2. Euskaldun osoak	51
9.1.3. Herritarrak	51
9.1.4. Sektore konkretuak	51
9.2. Herritarrengandik Elkartera	52
IV.- ZERTAN EZ DUGU ASMATU?	53
1. Euskaldunon atomizazioak hor darrai	54
2. Elkartearen izana ez dugu ondo transmititu	55
3. Euskaldun osoak Elkartera hurreratu gabe	55
4. Elkartea kaletik urruti ikusten da	55
5. Kultur sustapena motz geratu da	55
6. Komunikazio falta: Elkartea eta herritarrak	56
7. Batzar Orokorra	56
8. Zuzendaritza Batzordea	56
9. Suspertzailearekiko dependentzia	56

V.- EPE MOTZERAKO LAN ESPARRU BERRIAK ETA ZUZENDU EDO-ETA HOBETU BEHARREKO HAINBAT GAUZA	57
1. Epe motzerako lan esparru berriak	58
1.1. Euskararen ezagutza landu	58
1.1.1. Helduen euskalduntze-alfabetatzea	58
1.1.2. Kantitatea eta kalitatea	58
1.1.3. Gurasoen hizkuntz trasmisioa	58
1.2. Kultur eskaintza suspertu	59
1.3. Erdaldunak euskararen mundura	59
2. Zuzendu edo-eta hobetu beharrekoak	60
2.1. Atomizazioa geratu	60
2.2. Euskaldun osoak identifikatu eta erakarri	60
2.3. Informazio trasmisioa	60
2.4. Bazkideon arteko konpaktazioa	60
2.5. Funtzionamenduari dagokionean	60
VI.- HERRI MAILAN IZAN DIREN ALDAKETAK	61
1. Irakaskuntza gure alde	62
2. Familia	62
3. Udala eta ordezkari politikoak	63
4. Ikastetxeen arteko lehia	63
5. Ikastola publikoa ala pribatua	64
VII.- ELKARTEAREN JARDUEREN KRONOGRAMA	66
1. 92ko jarduna	67
2. 93ko jarduna	68
3. 94ko jarduna	69
4. 95eko jarduna	71
5. 96ko jarduna	73

SARRERA

1990. urtean bizpahiru bazkidek Elkarteak ez desagertzea erabaki zutenean, ez zuten asko pentsatu-ko bospasei urte geroago gauzak hainbeste aldatuko zirenik.

Bai, ELGOIBARKO IZARRAn asko aldatu dira gauzak tarte honetan. Zerbait bizirik dagoenean sei urte ez dira alferrik pasatzen eta aldaketak nabarmenak izaten dira. Gu ez gara salbuespena izan.

Oraingo txosten hau 90etik 96aren amaiera bitartean Elkarteak egin duenaren azterketa da, orain arte egin dugunaren irakurketa eta balorazioa. Izan ere, aurrera egiteko kemena, gogoa eta ilusioa badauzkagun arren, noizean behin atzera begiratzea ere mesedegarria izaten da. Atzean lagatako bost-sei urteko bidea nolakoa izan den aztertzea egokia izango da aurrera egin aurretik.

Bost urte hauetako jardunaren azterketa eta balorazioa egin nahi dugu: bost urteotako lorpenak azalduz, zer eta zergatik egin dugun jakinez, Elkartearen funtzionamendua aztertuz, izan ditugun baliabideak ezagutuz, akatsak identifikatuz, aurrera begira ditugun lehentasunak finkatuz, etab.

Azterketa honek, besteak beste, honako helburu hauek ere bete nahi ditu:

- . Egin duguna ezagutu eta zertarako izan den jakin.
- . Ondo eta gaizki egin duguna identifikatu eta bereiztu.
- . Aurrera egiteko orain arteko esperientziaz aprobetxatu.
- . Elkartearen masa sozialari eta herriari Elkartearen jardunaren berri eman.

Beraz, has gaitezen bost urte hauetan ELGOIBARKO IZARRAk bizi izan duena gogora ekarri eta baloratzen. Halere, txosten hau ez da atzera begira jarri eta loak hartzeko. Txostenaren helburua etorkizunean dago, aurrerako bidean lagungarri eta erakusle izango den azterketa sakon bat egitea da gure intentzioa. Atzera begiratu nahi dugu baina beti aurrera egiteko ilusioarekin.

ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkarteak

ZER LORTU DUGU BOST-SEI URTEOTAN?

Txostenarekin hasteko, bospasai urteotan Elkartek zer lortu duen aztertu eta ikusiz hasiko gara..

Egin eta lortu dugun guztia gogoratu eta identifikatzea erraza izango ez bada ere, ahalik eta azterketa sakonena egiten saiatuko gara. Eta horretarako bi zati bereiztuko ditugu:

1. Elkartearen lorpenak edo lortzeko bidean daudenak, orokorrean ikusita.
2. Proiektu bakoitzarekin lortu duguna edo-eta lortu nahi duguna.

Azter ditzagun biak eta ikus dezagun zer den urte hauetan egin duguna. Zer egin dugun eta zertarako izan den.

1. ELKARTEAREN LORPENAK OROKORREAN:

1.1. ELGOIBARKO IZARRA BIZIRIK MANTENTZEA, LEHEN LORPENA:

Ez dakigu inoiz konturatu zareten egungo egoeran txirripaz gaudela. Izan ere, 1990. urteko Batzar Orokorrean Elkartearen azkena hari batetik zintzilik egon zen; jendeak Elkartea desagertzeko gogoazaldu zuen, ez zioten funtziorik ikusten, Elgoibarko historiara pasatzeaz egon zen.

Zorionez ez zen horrelakorik gertatu. Elkartearen presentzia inoiz baino beharrezkoagoa zela pentsatzen zuen jendea tokatu zen batzarrean. Ez ziren asko, lauzpabost, baina horien erabakia tinkoa izan zen: 'ELGOIBARKO IZARRA ezin da desagertu, orain gaizki bagaude ere denbora hobeak izango diren esperantzan, Elkartea bizirik mantendu beharra daukagu'.

Hauxe da lehen lorpena. 90ean erabaki hau hartu ez balitz, ez ginateke gauden egoeran egongo. Lehen esan bezala, Elgoibarko historiaren orrialdeetara pasako zen betirako Elkartea.

Elkartearen bigarren etapa une honetan hasten da, hiru-lau bazkidek segitzea erabakitzen duten une berean alegia. Izaten segitzeko borondateak gaina hartzen dio dena bertan behera lagatzeko proposamenari.

1.2. JENDE ETA IDEIA BERRIAK PROTAGONISMOA HARTZEN HASTEN DIRA:

Elkartea ez desagertzeko erabakia hartu zutenak erronka handi baten aurrean zeuden: Elkartea ezin da bertan bera laga, konforme, baina orain artean egin duguna egiteko merezi al du Elkartea bizirik mantentzea? Jende eta ideia berriak behar ziren eurek hartutako erabakiari arrazoia emateko.

Euskal Herrian zehar zabaltzen ari zen euskara elkarten fenomenoaren haizeek, Elgoibarko baztarretan ere izan zuten eraginik. Arrasaten AEDk hasitako dinamika berriaren esperientzia kontutan hartuz, eta Txepetxen teorien laguntzarekin, estilo eta lan dinamika berri bati ematen diogu hasiera.

Bai jendea (denak ez noski), bai estiloa eta bai lan egiteko metodologia ere, berriak dira neurri handi batean, beste dinamika bat ezartzen da. Etapa berriaren lorpen berri baten aurrean gaude.

1.3. ELKARTEAREN IZENA ETA IZANA BERRESKURATZEA DA LEHEN ZEREGINA:

Ez zegoen atzera egiterik, erabakia hartuta zegoen. Erabaki kolektibo baten aurrean geunden. ELGOIBARKO IZARRAK urteetan galdutako izena eta izana berreskuratzeko une historikoa iritsi zen. Denbora desberdinak ziren, jendearen jarrera ere ez zen berdina, baina inoiz falta izan ez den zerbait somatzen zen oraindik ere: IZATEKO BORONDATEA. Ezertan hasi aurretik ezinbesteko baldintza.

Elkartearen bigarren etaparen aurkezpen irekiaren ondoren, Elkartea toki bat bilatzen hasten da Elgoibarko gizarrean. Berea zuen tokia baina urteen poderioz galtzen joan zena.

Lehen helburua Elkartearen propaganda edo promozioa egitea izan zen. Jendeak jakin egin behar

zuen Elkartea berpiztera zihoala. Nagusiei eurak hasitako lanak jarraipena zuela ikusarazi behar genien, segitu egin behar genuela. Gazteek, berriz, euren eta denon etorkizunaren aldeko apostu garrantzitsu bat hastear zegoela somatu behar zuten.

1.4. BAINA LEHENGO PRESTIGIOA ETA IZEN ONA LORTZEKO GAUZA IZANGO AL GINEN?

Erronka gogorra zen. Elkarreak hogeita bost urtean Elgoibarren lortutako estimazioa eta prestigioa handia izan zen, eta ez zen batere erraza izango itzal hura berriz ere bilatzea. 90. hamarkadan zaila zen gizartetik sortutako mugimendu batek denon onespina lortzea. Etiketatzearen mamua oso hurbil ikusten genuen, bai barruan geundenok eta bai kanpotik begira zeudenek. 'Kontuz gero politikakiakin nahasten!' izan zen aro berrikook entzun behar izan genuen aholkuetariko bat. Duela 30 urte euskaldunen artean benetako konpaktazioa ikusten zen toki berean (oso argi baitzuten zeren kontra zeuden), euskaldungoaren atomizazioa ezagutuko dugu 90eko hamarkadan. Euskaldunok talde izateari laga eta bakoitza bere aldetik ikusiko dugu. Taldeak beste erabatekoak dira orain: politikoak, ideologikoak, ... Atomizazio horrek asko zailtzen zuen gure lana, euskaldungoa biltzea eta konpaktatzea baitzen gure lehen zeregina.

Elkarreak ba al zuen argumenturik sakabanatuta zegoen euskaldungoa konpaktatu eta arrazoi beraren bueltan biltzeko?

Galdera honen erantzuna eguneroko jardunak bakarrik eman diezaguke eta oraindik ere azken erantzuna jasotzeko gaudela iruditzen zaigu.

Etiketatzearen mamua badirudi aldegiten ari dela. Elkarrearen bilakaera historikoak, Elkarreak bost urte hauetan erakutsi duen neutraltasunak eta izan dugun suerteak, etiketaren arriskutik libratu gaituztela dirudi.

Orokorrean herritarrek ondo ikusten gaituzte eta errespetatuak garelako konturatzen gara, nahiz eta jakin oraindik errezero guztiak ez ditugula uxatu. Errezero hauen azterketa geroago egingo dugu.

1.5. ELGOIBARKO GIZARTEAREN ERDIGUNEAN JARRI BEHAR DUGU:

Gizartearen ertz batetik sartzen hasten gara, isilpean eta zarata handiegirik egin gabe. Baina ez gara jaiotzean gelditzeko, gure tokia erdigunean dagoela badakigu eta poliki-poliki gurea den tokia-aren bila abiatzen gara.

Elkarrearen jardunak gero eta garrantzia handiagoa hartzen du Elgoibarko gizartearen. 92ko abenduan lehen jauzi kualitatiboa emango du Elkarreak: BARRENeekin gizartearen erdi-erdian jartzea lortuko dugu, erreferentzia puntu bilakatuko gara.

Ertza edo periferia laga eta erdigunerantz abiatuko da Elkarrea, zarata handirik gabe baina etengabeko jardunean.

1.6. ERDIGUNEAN JARRI ALDE GUZTIETARA IRISTEKO:

Elkartearen helburua Elgoibarko gizarteko sektore guztiengana iristea da. Arestian erdigunean jarri nahi dugula esan badugu, hain zuzen ere horretarako da, erditik errazagoa delako alde guztietara iristea. Eta oraindik gizartean guk nahi beste hedatu ez bagara ere, hainbat sektorerengana ondo iristea lortu dugula iruditzen zaigu. Besteak beste, haurrak, zaharrak, baserritarrak, elkarte eta entitate-etako jendea, guraso asko eta asko, erdaldun dexente eta beste hainbat sektore dira bospasei urte hauetan ikutzea lortu ditugunak.

Fisikoki ere Elgoibar bere osotasunean harrapatzen dugula esan dezakegu, hau batez ere BARRENI esker. Izan ere BARREN Elgoibarko bazter guztietara iristen da, baserri auzoak barne.

Amaitzeko, gure lan esparru nagusia Elgoibar bada ere, kanpoan bizi diren elgoibartarrak ere ez ditugu ahazten. BARRENe bidez horietako ehundaka lagunengana iristen gara astero-astero. Elkartearen hainbat kultur eskaintzak ere izan du estimaziorik herritik kanpora.

Elkarreak izan duen eragin sozialaren adierazgarri, bost urte hauetan antolatutako jardueretan mugitun dugun jende kopurua azalduko dugu: 92an 2.960 lagun, 93an 3.602 lagun, 94an 3.907, 95ean 4.413 eta 96an (2.903).

1.7. EUSKALDUNGOAREN ATOMIZAZIOA FRENATU AL DUGU?:

Arestian zerbait aipatu badugu ere, garrantzitsua da zeregin hau berriz gogoratzea. Euskaltzaleon atomizazioa apurtu behar dugu. Ideia eta iritzi desberdinen gainera, euskaldungoaren konpaktazioa behar-beharrezkoa da euskararen eta euskaldunon geroa ziurtatzeko. Baina Elgoibarren ba al dago borondaterik horretarako? Euskararen eta euskaldunon etorkizunaren alde BAT egiteko prest al gaude bestelako diferentziak alde batera lagata? Galdera honen erantzuna jasotzeko gaudela iruditzen zaigu askotan, nahiz eta guk baietz pentsatu. Horrela ez balitz Elkarreak ez luke izateko arrazoirik izango.

Herritar askoren artean euskalgintzako erreferentzi puntu bilakatu garela konturatu gara. Orain arte Ikastolak eta euskaltegiek zuten eskusiba euskalgintzari zegokionean. Aurrerantzean ELGOIBARKO IZARRAK ere bere tokia eskatuko du eta 94an egindako ikerketan, herritarren % 19ak euskararengatik gehien arduratzen dena Elgoibarko Izarra dela aitortuko du.

Denok ulertuko dugun bezala, hau ez da lehiaketa bat. Goian aipatutako erakundeek, eta aipatu ez diren beste mordo batek, osagarriak izan behar dute Elgoibarko euskalgintzan. Bakoitzak bere funtzioak dauzka eta hori da garbi izan behar duguna. Azken finean, nahiago genuke euskararen aldeko lanean 'konpetentzia' handiagoa egongo balitz.

1.8. ELKARTEAK LORTU AL DU BERE HELDUTASUNA?

Amaitzeko, eta laburpen gisa, bospasei urte hauetan Elkarreak heldutasuna lortu duen ala ez aztertuko dugu. Eta heldutasuna lortu dugun ala ez jakiteko, hiru ezaugarri bete behar ditu ELGOIBARKO IZARRAK. Ikus dezagun zein diren ezaugarri edo baldintza hauek:

- . Ezagunak izatea.
- . Errezelarik ez izatea.
- . Euskaltzaleon bilgunea izatea.

Arestian ere zerbait esan dugun arren, ez digu kalterik egingo berriz ere gogora ekarri eta gehiago sakontzeak:

1.8.1. Ezagunak izatea:

Ezagunak bagarela uste dugu. 94an egindako ikerketaren arabera, 10etik 7k ezagutzen dute Elkartearen izena. Harrezkero gora egingo zuela iruditzen zaigu eta ez dugu uste inolako arazorik dagoenik **izanari** dagokionean. Bitxikeria bezala, prentsako herriko kroniketan, lau urtetan (92-95) 310 aldiz irten garela aipa dezakegu. Bataz beste 6 aldiz astean. BARRENen, berriz, 150 aldiz izan da gure berri hiru urtetan.

Izanari dagokionean, berriz, gauzak aldatu egiten dira. Izanari buruz zalantza eta ezjakintasun handia dago. DUDARIPE! bezalako kanpainekin izanaren propaganda egin nahi izan dugu. Halere, izanaren propagandarik onena eguneroko jarduna dela iruditzen zaigu. Baina herritarrek Elkartearen jardunaren berri izan behar dute eta informazio trasmisioan asmatzea ezinbestekoa izango da herritarrek Elkartearen izana ezagutu dezaten. Gai hau geroago aztertuko dugu.

1.8.2. Errezelarik ez izatea:

Lehen ere esan dugu zaila dela gu bezalako Elkarte batek batere errezelarik ez izatea. Herritar guztien gustukoak izateko ahaleginak egin baditugu ere, jakin badakigu (eta hau ezin dugu ezkutatu) badagoela jende bat Elkarte ondoegi ikusten ez duena. Baina zergatik errezelo edo zalantza hauek? Zer da gaizki egin duguna? Zertan ez dugu asmatu? Errezeloak zein aldetatik datoz? Denak alde beretik datoz ala leku diferenteetan daude?...

Gai hau sakon aztertu beharko du Elkarteak. Txostenaren amaiera aldean ikus daiteke honi buruzko gogoeta.

Halere, oraingoz datu batzuk eman beharrean gaude:

- . Elgoibartarren % 85a Elkartearen helburuekin ados edo guztiz ados dagoela aitortzen du.
- . Elkartearen lan, efikazia eta emaitzetan herritarren %73.4ak sinesten du.

Beraz, sei urteko jardunaren ondoren ez dugu uste negarrari ekiteko bezalako datuak direnik. Gure helburua egun sinesten ez duten horiengana iristea izango da. Hemendik gutxira horiek ere sinesteko ahaleginean segitu behar dugu, baina garbi izanda gutxi batzuk ez dutela inoiz sinestu nahi izango.

1.8.3. Euskaltzaleon bilgune izatea:

Euskaltzale askoren bilgune garela inork ezingo digu ukatu. Elgoibarko euskaltzale askok eta askok bat egiten du Elkartearekin. Horren adierazgarri dugu Elkartearen bazkide kopurua: 630 inguru.

Euskaltzale guztien bilgune al gara? Ez seguruenek. Aurretik lagatako hari muturrari berriro helduz, oraindik ere badaude Elkartetik urrun dauden euskaltzaleak. Hauek hurreratzea da Elkartearen zeregin garrantzitsuenetakoa.

2. PROIEKTU BAKOITZAREKIN LORTU DUGUNA:

Elkartek orokorrean zer lortu duen aztertu ondoren, ikus dezagun zer lortu dugun edo-eta zer lortu nahi dugun proiektu bakoitzarekin. Zertarako jarri dugun martxan proiektu bakoitza, alegia.

Proiektuen azterketa kronologia errespetatuz egingo dugu, lehenengoarekin hasi eta azkenarekin amaitzeko.

- . Kultur eskaintza.
- . BARREN astekaria.
- . Aisialdi proiektua.
- . Gurean Bai Hitzarmena.
- . Bestelakoak.

2.1. KULTUR ESKAINTZA:

Elkartearen helburuak aztertzen ditugunean, ELGOIBARKO IZARRAK kultur eskaintza zabal, aberats eta iraunkorra eskaini behar duela adierazten dugu. Beraz, jarraian 92tik hona izan dugun kultur produkzioa aztertuko dugu, zer egin dugun eta zelako estimazioa izan duen.

Kultur produkzioaren azterketa eta balorazioa eskaintza motak kontutan hartuz egingo dugu.

2.1.1. MAHAINGURUAK:

Sei urte hauetan beste horrenbeste mahainguru antolatu ditugu, 6 hain zuzen ere. Lau herriko jendearekin izan dira eta bi kanpotarrekin. Guztira 35 lagunek parte hartu du mahainguruetan eta 260 lagun izan dira entzuten.

Inplikatu dugun jendea, berriz, denetarik izan da: nagusiak, gazteak, jubilatua, herritarrok orokorrean, kirolzaleak, ...

Herriko jendea protagonista izatea ideia ona da eta gainera jendea eramaten du. Alabaina, lan handia ematen du behar den bezala antolatzeak. Kasu honetan profesionalaren beharra nabarmen somatzen da.

Gainontzean jarduera aproposa iruditzen zaigu hainbat gairen inguruan herritarren iritziak entzun eta ezagutzeko. Profesional baten inplikazioarekin aurrerantzean ere antolatu beharko dugu urtean bizpahiru mahainguru.

2.1.2. IKUSKIZUNAK:

Ikuskizunei dagokienean, eta bertso munduari lotutakoak kontatu gabe, 7 antolatu ditugu: 3 antzerki emanaldi eta 4 jaialdi.

Guztira 1.700 lagun izan dira ikuskizun hauetan eta maila ona eman dutela aitortu behar dugu. Jendea gustu eta adin guztietakoa hurreratu da.

Inor azpimarratzekotan, 92ko ekainean 'Ez dok amaitu!' ekimenaren baitan antolatu genuen Izarren Festa nabarmendu dezakegu. Herriko jendearekin antolatutako jaialdia izan zen eta benetan polita eta egokia izan zela aitortu dezakegu.

Ikuskizunak antolatzeko oztoporik nagusia dirua izaten da. Ikuskizunak oso garestiak izaten dira eta zailtasun handiak izaten ditugu antolatzeko.

2.1.3. HITZALDIAK:

Ezingo dugu gehiegi antolatu ditugunik esan: 3 gutzira. Nahiz eta hitzaldiek hasiera-hasieratik beldur pixka bat eman, ausartagoak izan behar dugu eta gehiago antolatu behar ditugu. Hitzaldi bakoi- tzeraz, batz bestez 30 lagun hurreratu dira eta ez dugu uste ileetatik tiraka hasteko kopurua denik.

2.1.4. IKASTAROAK:

Bi ikastaro antolatu ditugu: Sukaldaritza bejetarianoa eta grafologia. Biek ere estimazio polita izan dute eta errepikatu egin behar izan dugu, jendearen demanda uste baino handiagoa izan delako. Arrakastaren giltza ikastaro arraro eta berriak antolatzean dago.

2.1.5. BERTSO MUNDUA:

Bertso mundua ondo hornitua datorrigu. Ikus dezagun azpimarragarriena:

Batetik, Bertso Eskola daukagu: 6 urte hauetan bi irakasle eta 80 ikasle inguru izan ditugu. Batzuk bapatean jarduteko gauza ere badira eta jendeaurrean bertsoak botatzeko lotsarik gabeko lauzpa- bost gazte badauzkagu.

Gabonetako Bertso Jaialdia aspalditik datorren ohitura dugu. Urte asko da Elkartea jaialdi hau anto- latzen hasi zenetik. Etapa berrian 5 antolatu ditugu eta denetik egon da: 1.100 lagun pasa Polikiroldegian ezagutu dugu eta 350 eskas herriko Antzokian ere bai.

94an antolatutako Bertso jarrien kantaldia izan da bertso munduan izan dugun aziertoetariko bat. Herrian ezezik herritik kanpora ere proiektzio handia izan zuen eta oihartzun zabala lortu genuen ekimen honi esker.

Bertso afariak ere antolatu ditugu baserri auzoetan bertakoekin elkarlanean, hiru afari hain zuzen ere. Auzoak ere aintzakotzat hartu behar ditu Elkarreak eta batez ere baserri girokoak.

Santa Ageda bezperari buruzko informazioa OHITURA ZAHARRAK atalean ikus daiteke. Nagusien Etxegiña Bertso Paper Lehiaketa, berriz, LEHIAKETAK atalean.

2.1.6. LEHIAKETAK:

Lehiaketei dagokienean, ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK azpimarratu beharko dugu. 93an hasi ginen antolatzen eta lau urtetan 1.500 lagun inguruk hartu du parte. Ez da ez marka maka- la. Gainera, kantitatea ezeze kalitatea ere azpimarratu beharrea gaude kasu honetan.

Nagusien Etxegiña Bertso Paper Lehiaketa ere hor izan dugu hiru urtetan. Ideia txarra ez bazen ere, itxura denez jendea ez dago bertsoak idazteko aldarlean eta bertan behera lagata daukagu lehiaketa.

BARRENEK 94ko udaran antolatutako udako argazki lehiaketa ere hor dago. 'Sin pena ni gloria' esaten dute erdaldunek horrelakoetan.

2.1.7. OHITURA ZAHARRAK:

Atal honetan SANTA AGEDA bezperan baserriz-baserri koplak kantari jarduteko ohituraren berreskurapena azpimarratu behar dugu nahitaez. 93an hasi ginen ohitura zahar honekin eta hiru urteotan benetan txukun irten zaizkigu gauzak. Hiru urtetan 90 lagun ibili gara eskean eta 240 baserri koplatu ditugu Elgoibarko auzo guztiak pasatuz.

OLENTZERO ere aspaldiko ipuina da Elgoibarren. Haurren kasuan, hasieran Ikastolak antolatzen zuen, gero Euskara Batzordeak hartu zuen antolakuntzaren erantzunkizuna eta azkenik Elkartearen arduraren dago azken 4-5 urteotan. Oraingo ez dugu lortu Erregeen kabalgatak duen arrakastarik baina ez dugu uste zeharo gaizki irtetzen denik. Ematen diogun baino garrantzia handiagoa eman behar zaion ala ez guk hartu beharreko erabakia da.

2.1.8. ARGITALPENAK:

Atal honetan bi gauza aipatuko ditugu:

. LAIOTZ literatur aldizkaria: 1000 ale argitaratzen ditugu aurreko Idaz Lehiaketetako lan irabazleak jendeak ezagutu eta irakur ditzan. Oraingo 3 zenbaki argitaratu ditugu eta hirurak egokiak izan direla esan dezakegu.

. Ez dok amaitu!-ko bideo-zinta. 92ko jaialdia grabatu egin genuen eta oraindik ere badaude zintak Elkartean norbaitek nahiko balitu. Bideozintan egitasmoan izan ziren bi ekintzen laburpena ikus dezakegu: Izarren Festa jaialdiarena eta Elkartearen sortzaileei egin genien bazkari-omenaldiarena.

2.1.9. BESTELAKOAK:

Bestelako batzuk aipatzekotan, Morkaiko Mendizale Elkartearekin elkarlanean antolatu genuen Lurra eta Hizkuntzaren Eguna azpimarratuko genuke. Egitasmo itxurosoak izan ziren eta herriko elkarteekin harremanetan sartzeko parada eskaini zigun.

92an Elkarteko sortzaileei egindako omenaldia ere ezin dugu ahaztu. 125 lagun bildu ginen Ikastolako pilotalekuan eta gauzak oso ondo irten ziren.

2.1.10. GOGOETA:

Eta kultur jarduera hauek antolatuta, zer da lortu duguna? Galdera ona bezain zaila izan daiteke. Erantzuna ahalik eta garbien ematen saiatuko gara. Besteak beste, eta gure ustetan, hau ere lortu dugu:

. Orokorrean, Elkartearen izena Elgoibarko gizartean bizirik mantentzea lortu dugu iharduera hauen bidez. Elgoibarko kultur panoraman Elkartearen izena ere kontutan hartu behar da, toki bat irabazi nahi dugu.

. Iharduera hauen bidez euskarak prestigioa lortzen du. Kultur eskaintza ona beti da estimagarria herritarren partetik. Eskaintza hau euskaraz bada, euskarak lortzen du prestigioa eta estimazioa. Euskara jakin beharra sortzen da. Euskararen erabilerak funtzio kulturala berreskuratzen du.

. Herritarrei zerbitzu kultural bat eskaintzen diegu euren gustukoa dena kontsumi dezaten. Aukeran lagatzen dugu bakoitzak nahi duena proba dezan.

Eta jarduera bakoitzarekin?

. Mahainguruekin, Elgoibarko herritar anonimoei egun batez protagonista izateko aukera ematen diegu. Zer esana denok dugula esan ohi da, guk berba egiteko aukera ematen diegu bestela auke-
rarik izango ez luketen hainbat herritarri. Bestalde, herrian erroturik dauden hainbat gai herritarrek
aztertzeke aukera eskaintzen dugu. Gainera, Euskal Herriko hainbat pertsona ezagun ikusteko eta
entzuteko aukera ere izan dugu.

. Ikuskizunek butaka baten jarri eta ordu batzuk noberaren gustukoa den zerbait gozatzen egoteko
aukera ematen digute. Xabier Lete, Hiru-truku edo Oskorri entzutea beti da gustagarria.
Antzerkiarekin beste horrenbeste esan dezakegu, eta herrikoak direnean gehiago estimatzen da gai-
nera.

Izarren Festa, berriz, aparteko izan zen. Konturatzen al zarete ia ehun lagun mugitu genituela hiruz-
palau hilabete aurretik? Eta egun osoa lanean pasa ondoren, gauean dantzak entsaiatzera joaten
zirela 30 lagun inguru? Entsaioak, nerbioak, tentsioa,... denak merezi zuen ikusi genuena ikusteko.
Gaztetako oroitzapenak gogorarazteko batzuk eta ahaztuta zuten zerbait errekuiperatzeko besteek,
denek eman zuten barruan zuten guttia. Ikustera joan zirenak ere ez ziren damutu. Bi hitzetan esa-
teko orain arte izan dugun ikuskizunik ederrena eta emankorrena izan da Izarren Festa.

. Hitzaldiek ez dute gehiegi eman. Bi bakarrik antolatu ditugunez, ezingo gara ez dagoenetik ate-
ratzen hasi. Lehen esan bezala, sarriago antolatu behar ditugu, linea jakin bat definitu eta ausartak
izan.

. Ikastaroei buruz ere ezin dugu gauza gehiegi esan. Jendeak zerbait berria ikasten du eta horreta-
rako antolatzen ditugu. Ikasteak ez dauka sekula kalterik! Amaitzeko kuriositate bat aipatu nahi
dugu: ikastaroei euskara jakiteko beharra ere sortzen dute. Zergatik diozue hori? Grafologia ikasta-
rorako erdaldun batek deitu zuenean, euskaraz zela esan genionean triste jarri zen. Baina ez euska-
raz zelako, berak euskaraz ez zekiela baizik: Hurrengo urtean euskara ikasten hasiko zela esanez
agurtu zen.

. Bertso munduari dagokionean, bertsoa hizkuntzari oso lotuta egon dela eta dagoela aitortu behar dugu. Euskalgintza eta bertso mundua eskutik joan izan dira eta gu ere horretan saiatu gara: bertso mundua suspertuz euskalgintza aberasten. Ikasle mordoska izan dugu euskararekin jolasean bertsoak lantzen, urtero bertso jaialdi bat gozatzeko aukera eskaintzen dugu, bide berriak landu ditugu bertsoa eta musika uztartuz, Elkartea eta baserri auzoak ezkondu ditugu,...

. Lehiaketan bidez herritarren abileziak ikusteko eta erakusteko aukera izaten da. Kasu honetan haur eta gaztetxoek idazteko abilezia jarri nahi dugu martxan. Eta, egia esan, gaztetxo askoren artean idazteko maila ona (batzuetan) dagoela konturatu gara. Gure intentzioen artean hauei atentzio berezia eskaintzea dago. Izan ere, jende honekin lan egitea oso aproposa izan daiteke euren trebetasunak alde batera laga ez ditzaten.

. Ohitura zaharrak mantendu egin behar ditugu. Gure herriko historiari ezin diogu bizkarra eman. Santa Agedako koruekin gauza polit asko ikusi ditugu baserrietan. Ahaztuta zegoen ohitura hau berriz ere martxan jartzekoan, ilusio eta poz handia sortu dugu baserriar askoren artean. Ez al da nahikoa arrazoi berdinekin segitzeko? Guk baietz uste dugu.

2.2. BARREN ASTEKARIA:

BARREN astekariarekin hasi aurretik, zilegi izango da aurretik izan genuen aldizkariari buruz zerbait esatea: TXITXILIBAKIOri buruz ari gara. Aldizkari hau izan zen Elgoibarren egin zen lehen saiakera eta langintza horretan aritu ziren herritar guztiei gure esker ona azaldu nahi diegu lerro hauen bidez.

Baina TXITXILIBAKIO egoera berrira egokitu beharra zegoen, aldizkari hark ez zituen etapa berriko behar eta helburuak betetzen. Beraz, TXITXILIBAKIOri agur esan eta fase berri batean sartu ginen. Zerbait berria pentsatu eta diseinatu behar genuen.

Eta horretan jardun genuen hiruzpalau hilabete, zer nahi genuen pentsatzen. Gure nahia hilabete-kari batekin hastea izan arren, gai honetan aintzindari izan den Joxe Aranzabalengana jo genuen dena lotzeko intentzioarekin, dena lotu eta bere oniritzia jasotzeko. Baina Elgetan izan zen batzarrean ez bata eta ez bestea ez genuen lortu: Hilabetekariak ez dute guk nahi ditugun helburuak betetzen, astekaria izan behar du.

Momentu honetan sortzen da gero mamituko zen ideia. Hemendik eta 92ko abenduan zero alea atera arte, lana eta etengabeko aurkezpenak nabarmenduko genituzke. Ideia saltzea izan zen lanik zailena. Gutariko batzuk proiektuan sinesten bagenuen ere, jende dexente zegoen (bai barruan eta bai kanpoan) proiektu utopikoa ikusten zuena, Elgoibarren ez zen posible horrelako astekari bat martxan jartzea. Astekaria astakeria ikusten zen.

Baina gure indarretan sinesteak eta lana ondo egiteak ematen duten konfidantza eta indarrarekin, 92ko abenduan BARREN oparitzen digu Olentzerok. ELGOIBARKO IZARRAK Elgoibarko herriari oparitutako erregalua.

Lehen zeregina beteta zegoen, errazena akaso. Gero, astero-astero herritarren gustukoa izango zen astekari bat argitaratzeko ardura eta erantzunkizuna geneukan. Erronka zaila bezain erakargarria.

92ko abendutik hona 4 urte pasa dira, euri asko egin du (elurrik ere bai tartean). Ia berrehun zenbaki, burukomin eta une goxo asko, milatik gora herritar, ehundaka elkarrizketa,...

Baina zer da BARREnek lortu duena? Zertarako da BARREN? Zer lortu nahi du Elkartek BARRENen bidez?

2.2.1. ZER LORTU DUGU?

. **Proiektu handi eta profesionala gauzatzea:** Azalpen sakonagoetan hasi aurretik, Elkartea proiektu handi eta profesionalak aurrera ateratzeko gauza dela ikusi dugu lehenik eta behin. Euskalgintzak proiektu handi eta baikorrak ere behar ditu, eta BARREnek horiek gauzatzeko kapaz gairela erakutsi digu. Gure indarretan eta lanerako prestutasunean ere sinestu egin behar dugu, bestela kostatzen behar zaigu gizarte honi guk nahi diogun itxura ematea.

. **11 milioi pezeta inguru sortzea:** Urtean 11 milioi sortzen dituen proiektu bat daukagu eskuartean. Ez dakigu honen garrantziaz jabetu garen, baina 24 milioiko proiektu honen aurrekontuaren erdia proiektuak berak sortzen du.

. **Astero-astero argitaratzea:** 4 urte betetzera goazenean, astero-astero hutsik egin gabe kaleratzea lortu dugu. Arrazoiak edozein izanda ere, ez litzateke arraroa izango asteren batean huts egitea.

. **Ordainketetan zuzen ibiltzea:** Euskalgintzari buruz ari garela kontutan izanik eta 24 milioiko aurrekontua duela jakinda, proiektu honetan zorrak lekua izatea ez litzateke arraroa izango. Gerentziaren lan onari esker, ordainketa guztiak zuzen egin direla harro esan dezakegu. Bai langileek eta bai hornitzaileek zuzen jaso dituzte euren diruak.

. Astero-astero Elgoibarri buruzko informaziorako **erreferentzi puntu izatea** lortu dugu. Komunikabide bat den aldetik, Elgoibarren gertatzen dena ahalik eta ondoen eskaintzea da BARRENen helburua. Jende dexente dago herriko informazioa BARRENetik bakarrik jasotzen duena. Gainera, kasu askotan BARRENen esaten dena solasaldietarako eta eztabaidarako gaia ere izaten da. Elgoibarko apaiz batek esaten zigun bezala, 'BARREN botere faktikoa bihurtzen ari da'.

. Hasieran 500 harpidedunekin hasi baginen (Elkarteko 500 bazkideak hain zuzen ere), orain **3.700 harpidedun** ditu BARREnek. Mendaroko 400 harpidedunak kenduz gero, 2.800 lagunek BARREN etxean jaso nahi dutela adierazi digute, banan-banan, inolako kanpainarik gabe. Elgoibartarrek BARREN estimatzea lortu dugu.

. **Euskararekin harremanetan jartzea** herritar asko eta asko. Erdaldunak etxera sartzen laga diote BARRENi. Euskaraz batera irakurtzen ez zuen jende asko eta askok, astero euskaraz irakurtzen du. Bestalde, batzuek idazten ere ausartu dira.

. Elkartearen **eragin soziala Elgoibarko eremutik kanpora ateratzea.** BARREN Elgoibarren ezeze kanpoan ere banatzen da, hemendik kanpo ere badu estimaziorik. 380 harpidedun inguru dauzkagu Elgoibartik kanpora. Gehientsuenak erbestean bizi diren elgoibartarrak direla kontutan izaten badugu, kasu honetan oso funtzio polita betetzen du BARREnek, elgoibartar hauei euren herriarekin loturak mantentzeko aukera ematen baitie.

. **Herriko kazetari batzuk herrian lan egitea.** Egun dagoen langabezia tasa kontutan izanda, guretzat lorpen bat da Elgoibarko hainbat gazteri BARRENen lan egiteko aukera ematea.

. Elgoibarko **sektore eta adin guztiak proiektu berean biltzea** lortu du: baserritarrak, zaharrak, umeak, enpresariak, ...

. **Sentimenduei dagokienean** ere izan dugu lorpenik: hildako elgoibartarrak gogora ekarri ditugu, zaharren gaztaroko oroitzapenak ezagutu ditugu, hildakoen eskelak ia astero irteten dira, ...

2.2.2. BAINA, ZERTARAKO DA BARREN?

. Elgoibartarrek **herriari buruzko informazioa izateko** sortu zen, eta guk sortu genuenez **euskaraz** ematen da informazioa. Euskararentzat funtzioak irabazteko ahaleginean, eta herri mailako informazioa faltan botatzen genuenez, herri mailako komunikazioaren funtzioa euskararentzat irabazi nahi izan genuen BARRENen bidez.

. **Hizkuntz komunitate normalizatuak eraikitze**. BARRENen inguruan hizkuntz komunitate egituratu bat sortzen ari gara. Euskara eta euskaldun osoak erduginean jarritz, elgoibartar guztiek kabida duten komunitate bat osatzea da gure helburua. Bai euskaldun osoak eta bai erdaldunak eroso sentitzen dira BARRENen hizkuntz komunitatean, bakoitzak bere tokia zein den oso ondo ulertzen duelako batez ere. Horrela ez balitz, ulertzen al da orain artean hain kexa gutxi izatea BARREN euskaraz delako?

Puntu honetan geldiene bat egitea komeni zaigu, izan ere BARREN oso tresna garrantzitsua baita erdaldunak euskarara erakartzeko. Helburua erdaldun hauek euskararekin harremanetan jartzea da, euren etxeetan euskarari lekua egitea, euskarari beldurrik eta errezelorik ez izatea.

Elgoibarren hizkuntz komunitate normalizatu bat zer den eta hiztun tipologia bakoitzaren tokia zein den erakusten digu BARRENek. Horretarako ere bada.

. **Euskararen prestigioa eta estimazioa altxatzeko**. BARREN herritarren gustukoa den neurrian, bertan erabiltzen den hizkuntzaren prestigioa eta onespina gorantz doa. BARREN herriaren mesederako bada, euskara ere beste horrenbeste dela ohartzen da jendea.

. **Euskararen erabilera suspertzeko**. Erabilera suspertzeko arlo hauetan:

- . Langile eta kolaboratzaileen artean.
- . Herritarren artean, bai idazten dutenek eta bai irakurtzen dutenek.
- . Lehen esan bezala, funtzio lokal berri bat eskaintzen diogu euskarari.

. **Euskararen ezagutza suspertzeko:**

- . Langile eta kolaboratzaileen artean.
- . Herritarren artean, bai idazten dutenek eta bai irakurtzen dutenek.
- . Elgoibarko hizkeraren berri izateko aukera bakarretarikoa ere BARREN izango da. Nahiz eta asko izan ez.

. **Euskararen motibazioa:** Gustukoa izan eta estimatzen den astekari bat astero etxeko buzoian jasotzen bada, bertan erabiltzen den hizkuntzarekiko motibazio natural bat sortzen da inplizitoki.

. Azkenik, BARRENek guk amesten dugun gizarte berriko parte izan nahi du. Izan ere, BARREN ez baita helburu bat lortzeko tresna bakarrik, berez helburua ere bada. Helburua komunikabide zabal, ireki, autonomo, integartzailerik, herrikoi eta euskalduna egitea da.

2.2.3. ZER LORTU BEHAR DUGU? NOLAKOA IZAN BEHAR DU BARRENEK?

. BARRENEK herritarren gustukoa izan behar du, ahalik eta herritar gehiengana iristea lortu behar dugu. Halere, badakigu helburu honen alde lan egiterakoan herritar batzuk kanpoan geratuko zaizkigula. Gustuak eta izakerak oso desberdinak daudelako batez ere.

. Astekariak ezaugarri batzuk izan behar ditu:

AUTONOMOA: Ezin gara interes partikularren esanetara ibili. BARREN zertarako den eta zer nahi dugun garbi badaukagu, guk eta guk bakarrik (herriaren nahiaren eta gustuen mesedetan beti ere) erabaki behar dugu BARREN nola egin.

IRIKIA ETA ZABALA: BARRENen denentzako tokia egon behar du, denok izan behar dugu kabida bertan, inolako aurrebaldintzarik gabe.

AUSARTAK: BARREN ezin da proiektu makal, beldurti eta geldo bat izan. Biziak eta ausartak izan behar dugu. Beti aurrera begira eta berrikuntzei lekua egiteko prest egon behar duen proiektua izan behar du.

2.3. AISIALDI PROIEKTUA:

SIADeco enpresa izan zen honen beharraz jabetu gintuena. Izan ere, Elgoibar bezalako herri batean (11.300 biztanle ingururekin), aisialdiari ez zitzaiola batere garrantziarik ematen konturatu zen Kike Amonarriz ikerlaria. Halaxe, euskara eta aisialdia ezkonduko zituen proiektu bat prestatzeko erronkaren aurrean jarri gintuen.

Urte eta erdi inguru preparazio lanetan ibili ostean, 96an ekin diogu benetako aisialdi plangintzari, hiru urteko plangintzari.

Ikus dezagun zer den orain arte lortu duguna eta aurrerantzean zer lortu nahi dugun:

2.3.1. ORAIN ARTE LORTU DUGUNA:

. Lo zegoen esparru bat esnatzea:

Lehen ere esan dugu hurren aisialdia erdi lotan zegoela Elgoibarren. Aisialdi talde profesional bat herriaren zerbitzurako prestatu dugu. Lozorrotik esnatzea behintzat lortu dugu eta ea esnatu ostean, eta esperientzia lagun dugula, gauzak ondo egiten asmatzen dugun.

Esnatze prozesu hau, batez ere, haur eta gurasoei zuzenduta dago. Bi-biak dira gure proiektuan interes gehien dutenak.

. 30 gazte aisialdian lan egiteko prestatzea:

Aisialdi talde sendoa prestatzeko ezinbestekoa genuen begirale poltsa bat lanerako prest izatea. Deialdi irikia egin ostean, benetan pozik geratu ginen deialdiak izan zuen erantzunarekin: 32 lagunek eman zuten izena. Lehen urratsa emanda geneukan, elgoibartar gazteak prest zeuden gurekin lan egiteko. Gero prestakuntza sasoia iritsi zen: prestakuntza teorikoa Donostiako Elkarte baten eskutik jaso zuten, eta praktikoa lehen aisialdi esperientziekin eman zieten.

. Aisialdi Talde profesional bat herriaren zerbitzura:

Helburua Elgoibarren haurren aisialdia suspertzea dela esan dugu. Izan ere, ATXUTXIAMAIIKA ez da Elkartearentzat bakarrik. Elkarteak bere aisialdi proiektua edukiko du baina herriko beste edozein erakunde edo elkarte ere erabili ahal izango du. Elgoibarko herriak begirale talde bat du bere zerbitzura, 30 lagunek osatutako begirale taldea.

. Lehen aisialdi ekintzak martxan jarri ditugu:

Urte eta erdi inguru egon gara lanean Taldearen aurkezpen publikoa egin aurretik. Begiraleek esperientzia behar dute euren lanean aberasten joateko eta horretan jardun dute 96a arte. Bai aurkezpenaren aurretik eta bai ondoren hamaika aisialdi jarduera antolatu dugu eta ongi hasi garela esan dezakegu.

. Haurrak begiraleen lagun egiten hasi dira:

Haur asko dago begiraleak kalean agurtzen dituztenak. Hau detaile polita baino gehiago da. Haurrak aisialdia egituratzen hasi dira, badakite begiraleak euren lagunak direla, eurekin ondo pasatzeko lan egiten dutela. Azken finean, lor dezakegunik gauzarik politenaren atzetik gabilta: Elgoibarko haurrek Atxutxiamaikako begiraleekin identifikatzea, lagunak izatea. Horixe izango da taldearen propagandarik onena.

2.3.2. ZER LORTU NAHI DUGU AURRERANTZEAN?

Gure helburua haurren (oraingoz hurrekin bakarrik jardungo dugu) aisialdia ahalik eta era egokienean betetzea da. Haurren garapenean aisialdiak duen garrantziaz jabetuta, gure helburua aisialdi proiektu serio eta aberatsa prestatzea da.

Alabaina, gure Elkartearen helburua zein den kontutan izanik, ezin dugu aisialdiak eta euskarak duten harreman estua ahaztu. Haurren aisialdia euskaraz bete nahi dugu, haurrek euskaraz jolastu dezaten ahaleginduko gara, haurrek lagun berriak euskaraz ezagutu ditzaten nahi dugu. Azken finean, gizarteratze prozesua euskaraz burutzea da bilatzen duguna.

Bestalde, proiektu honen helbururik nagusienetakoa Elgoibarko haurren euskara ezagutza, erabilera eta motibazioa lantzea da. Etxean eta ikastetxean ikasten dutena aisialdian praktikan jartzeko aukera eman nahi diegu. Badakigu horrela izanez gero, erabiltzeko ohitura pizteaz gain, euskararen ezagutza mailak ere gora egingo duela. Gainera, eta amaitzeko, erabilera eta ezagutza era egokian uztartuz gero, euskararekiko motibazio naturala garatzen da haurren baitan. Beraz, haurren hizkuntzaren ikaskuntza prozesuan lagungarri izateko ere balio du aisialdi proiektuak.

Proiektu honen atzean dagoen beste helburu bat guraso erdaldunei dagokiena da. Guraso erdaldunak euskarara hurbildu behar ditugu eta eurek ikasteko aukerarik ez badute ere, euren seme-alabei euskararen ateak zabaltzea lor dezakegu. Oso adierazgarria eta pozgarria da guraso erdaldun peto-petoak euren sema-alabak hartu eta gure aisialdi jardueretarako izena ematen ikustea. Seme-alaben bidez bada ere, guraso hauek euskararen aldeko jarrera jorratzen ari dira euren baitan.

2.4. 'GUREAN BAI' HITZARMENA:

Elgoibarren euskarak bizi duen egoerari buelta emateko SIADECOK proposatzen zituen aukeren artean, elkarte eta entitateena zegoen. Elgoibarren erabileraren aldeko proiektuek lehentasuna zutez, elkarte eta entitateena zen baldintza onetsuenak eskaintzen zituena. Elgoibarren zaletasun handia dago arlo honetan eta batez ere euskaldunak dira elkarteetan mugitzen direnak.

Beraz, proiektu hau prestatzeko arrazoiak honako hauek izan ziren:

- . Eragin sozial handia dutela.
- . Elkarte eta entitateetan euskaldun asko mugitzen dela.

2.4.1. ZER LORTU DUGU ORAIN ARTE?

. **Udala proiektu honen beharraz jabetzea:** Arrazoiak oso argiak eta garbiak baziren ere, inolako diru-sarrerarik ez duen proiektua izaki zailtasunak aurrikusten genituen Udalarri proiektua aurkezterakoan. Baina egia esan behar bada, Udalarekin oso arazo gutxi izan ditugu proiektua berak finantziatu behar zuela ikustarazteko orduan. Hala ulertu du eta urtero-urtero, hiru urtean zehar, baloratuko dugu jarraipena nola egin.

. **53 entitatek baietza ematea:** Proiektua autokonpromezuan oinarritzen denez, entitateak eurak ziren proiektuak aurrera edo-eta atzera egitearen hitza zutenak. Egia esan, oso pozik geratu gara lehen erantzunarekin. Egindako gonbidapen guztien artean, 8k bakarrik esan ziguten ezetz eta 53 izan dira Hitzarmena sinatu dutenak. Elgoibartarren zati handi batek euskararen aldeko konpromesuari baietz esan dio. Benetan kontutan hartzekoa dela iruditzen zaigu.

. **Hitzarmenari merezi duen tratua eta oihartzuna ematea:** Aurkezpen ekitaldia benetan egokia izan zela uste dugu. Bai ekitaldiak berak eta bai komunikabideetan izan zuen oihartzunak, merezi izan zuten. Prestakuntza lanek euren fruitua eman zuten.

. **Elgoibarko entitateen diagnosia zehatza:** Orain arte Elgoibarren izan ez den diagnosia dugu eskuartean. Egoera zein den zehatz-mehatz dakigu eta hau lan tresna aproposa izango da hurrengo bi urte eta erdirako. Diagnosia zein den jakinda, lehentasunak eta lan metodologia finkatu behar ditugu jarraian.

2.4.2. ZER LORTU NAHI DUGU 'GUREAN BAI' HITZARMENAREKIN?

. Hitzarmenaren helburu nagusia euskal mikro-komunitateak osatzea da. Gure nahia Elgoibarren mikro-komunitate normalizatuak eraikitzea da, horrela errazagoa izango baita herri mailako hizkuntz komunitatea lortzea.

Ez gara hemen hizkuntz komunitateak nola eraiki behar diren azaltzen hasiko, baina bizpahiru ideia gogoraraziko ditugu guk nahi duguna lortzeko giltz bezala:

- . Entitateen erdigunean (aginpide organuetan eta eragina duten karguetan) euskaldun osoek egon behar dute.
- . Euskaldun osoek egin eta eragin behar dute euskal mikro-komunitateen eraikuntza.

Aurkezpen egunean erabileraren aldeko proiektu bat bezala aurkeztu bagenuen ere, hori baino gehiago dela konturatu behar dugu. Erabileraren aitzakia hartuta, goian aipatu ditugun mikro-komunitateak osatzea da gure nahia, eta horretarako erabilera ezeze ezagutza eta motibazioa ere landu beharko ditugu.

. Erabilera suspertzen doan heinean eta komunitateek itxura berria hartu ahala, euskaraz bakarrik funtzionatuko duen sare bat osatzea da beste helburu bat. Hitzarmeneko entitate eta elkarteek osatuko luketen sare euskaldun bat osatu nahi dugu eta sare horretako komunikazio guztiak euskaraz izango lirarteke.

2.5. IDAZKARITZA:

2.5.1. SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROAK:

Soziolinguistika ikastaroak bi egin ditugu, lehenengoa Elkartean barruan geundenontzako izan zen, bi eguneko. Bigarrena, berriz, 10 ordukoa eta herri mailara irikia.

Biak ere aproposak izan zirela uste dugu. Itxian 25 lagun inguru egon ginen eta irikian 60 lagun inguru ibili ziren bi txandatan banatuta.

Baina zertarako egiten dira ikastaro hauek?

Bi helburu nagusi azpimarratuko genituzke:

. Lanean dabilen jendeak jakin egin behar du zertarako ari den lanean. 'Euskararen alde ari gara' esanda bakarrik ezin gara kalera irten. Euskararen alde lan ezberdinak eta ugariak egin daitezke, baina gurea oso lan definitua da. Definizio hori argitzeko egiten dira ikastaro hauek.

. Gure lanari ahalik eta etekin handiena ateratzeko konpetenteak izan behar dugu. Zer lortu nahi dugun argi badaukagu eta hori lortzeko bideak ezagutzen baditugu, askoz ere etekin handiagoa aterako diogu gure eguneroko lanari. Ezin gara lanean itxuan ibili, jakin egin behar dugu zertarako eta zelan ari garen, bai lanean dihardugunok eta bai bazkideek (eta herritarrek ere bai).

Beraz, Elkartean mugitzen den jendeak, batez ere, argi izan behar du zertarako dagoen Elkartea, zein diren bere helburuak, eta bestalde, konpetentea izan behar du bere lanari ahalik eta etekinik handiena atera diezaion.

2.5.2. IZARREN HAUTSA BERRIPAPERERA:

Lehen ere esan dugu behin baino gehiagotan informazio transmisioa derrigorrezkoa dela Elkarteak aurrera egiteko. Honetaz jabeturik, eta Bazkideen Batzar Orokorrek bere funtzioa ez duela betetzen ikusita, bazkideentzako Berripapera ateratzea erabaki genuen. Hasi urtekari batekin hasi ginen, eta Batzar Orkorrearekin batera Berripapera banatzen genien bazkide guztiei Elkartearen berri izan zezaten.

Gero beste kezka bat ere izan genuen: lantaldeetan zebilen jendeak ez zuen Elkarteari buruzko informazio zuzen eta puntualik. Bakoitzak bere taldearen berri bakarrik zuen eta ez zuen

Elkartearen osotasuna ezagutzen eta ulertzen. Erabakia hamabostean behin berripapera banatzea izan zen. Elkartearen gurditik tiraka dabiltzan guztiei banatzen zaiei Zuzendaritza Batzordeko akta, 40 inguru hamabostero.

Zer lortu dugu Berripaperekin? Informazioa esku gehiagotara iristea, jendeak Elkartearen berri puntualagoa eta zehatzagoa izatea. Informazioaren garrantzia lehen ere azaldu dugunez ez gara gehiago luzatuko.

2.5.3. IKERKETA SOZIOLOGIKOA:

Elkartea lanean ari da, bere alde on eta txarrekin etengabeko jardunean dihardu. Baina, zer diote herritarrek gure lanari buruz? Zelan ikusten da gure lana? Sinesten al du jendeak egiten ari garenean? Ikusten al du jendeak Elkartearen beharrik?

Galdera horiek eta beste hamaika galderari erantzuteko egin genuen ikerketa. Eta ez genuen guk egin, inork datuak manipulatu egin genituela lepora ez ziezagun, enkarguzko lan bat izan zen eta soziologia ikasle elgoibartar batek egin zigun. Datuak berak ateratakoak dira.

Ikerketaren helburua Elkartea nola ikusten zen jakitea zen eta lortu genuela esan dezakegu. Gauza asko argitu genituen ikerketaren bidez, batzuk orain arteko bidean segitzeko berma ziren eta beste batzuk hutsuneak detektatzeko lagungarri. Gainera, ikerketak berehalako ondorioak ere izan zituen: DUDARIPE kanpaina herrian Elkarteari buruz dagoen informazio faltaren ondorioa izan zen.

Beraz, aurrerantz ere bide beretik segitzeko asmoa daukagu. Bost urtean behin ikerketa bat enkargatuko dugu Elkartearen bilakaera zein den ikusteko.

2.5.4. UDALA ETA ELKARTEAREN ARTEKO ELKARLANA:

Euskara bezalako gaietan, administrazioa eta herri mugimendua bata bestearengandik aparte ikusten ohituta gaude (muturjoka ere bai kasu askotan). Guk dinamika hau eten nahi genuen. Administrazioak bere ardura eta erantzunkizuna dauka euskarari dagokionean eta exigitu egin behar zaio berari dagokiona betetzea. Eta berari dagokiona, besteak beste, herri mugimenduari laguntzea ere bada. Baina zer gertatzen da herri mugimendua eta administrazioa elkarren aurka jartzen direnean? Administrazioak oso aitzakia ona izaten duela eskatutako laguntza eta elkarlan guztiei bizkarra emateko. Gainera, sarritan gai honetan berez tokatzen zaizkion ardura eta erantzunkizunei ere ez die aurre egiten.

Guk hasieratik genekien momentu askotan eskutik joan behar genuela Udalarekin. Eskariak egiteko ez genuela inolako lotsarik izan behar eta Udala derrigortuta zegoela guri laguntzera. Eta kritika batzuk entzun izan baditugu ere, oso gustura gaude lortu dugunarekin. Elgoibarren beste inork lortu ez duena lortu dugu guk, administrazioak eta herri mugimenduak bat egin eta elkarlanean jardutea.

Gure nahia elkarlan hau sendotzen eta aberasten joatea da. Amaitzeko esan dezagun, Udalarekin elkarlanean jarduteak ez duela, derrigorrez, Elkartearen autonomia kolokan jartzen, eta hori oso argi daukagu.

2.5.5. 'ALKATE ETA ZINEGOTZIEN EJENPLUA NAHI DUGU' kanpaina:

Administrazioarekin jarraituz, euskararen normalizazioan herriko ordezkarien papera aztertu nahi genuen. Herriko ordezkariak diren neurrian herritarren aurrean ejenplua eman behar dutela iruditzen zaigu. Eta horixe izan da, eta da, kanpaina honen helburua. Bidea prestatu nahi dugu epe ertainera Elgoibarrek ordezkari politiko euskaldunak izan ditzan. Elgoibarrentzat ordezkari politiko euskaldunak izateak esan nahi duen guztiarekin.

2.5.6. DUDARIPE! kanpaina:

Lehen ere aipatu dugu kanpaina hau. Izan ere herritarrek Elkartearen izena ezagutzen dute baina izanari buruzko informazioan dago hutsunea. Kanpaina honekin izana kaleratu nahi dugu. Komiki baten bidez Elkarteari buruzko ideia nagusienak era arin batean kaleratu genituen. Ez zen informazio sakona baina jende dexenterengana iritsiko ginela uste dugu. Informazio orokorra izateko nahikoa izan zela uste dugu.

Orain arte egindakoa azaleko informazioa izan bada ere, bazkide kanpaina amaitu ostean, informazio kanpainarekin segitzeko intentzioa daukagu eta oraingoa informazio sakonagoa emango dugu.

2.5.7. 1.000 BAIETZ! kanpaina:

Elkartearen lehen etapan 1.400 bazkide izatera iritsi ziren, ikusten dugunez benetan babes sozial handia zuen. Bigarren etapakoon nahia ere ahalik eta bazkide gehien izatea da. Zein den bazkide asko izateko gogoaren arrazoiak? Arrazoiak, besteak beste, bi dira:

- . Elkarte bat izanik bazkideek konfidantza, babesa eta sinesgarritasuna ematen diote Elkarteari.
- . Ekonomikoki oso garrantzitsua izan daiteke bazkide kuotetatik lor dezakegun diru kopurua.

Bigarren etapari 500 bazkiderekin eman genion hasiera. 90ean 800 bazkide inguru baginen ere, bigarren etapa hasi genuenean gure asmoen berri eman genien bazkide guztiei. Aro berri bat has-tear zegoenez aukeran laga genien segi ala ez, 300 inguru izan ziren baja eskatu zutenak.

Bost urte hauetan ez dugu bazkide kanpainarik egin, 500 bazkide oso kopuru majoa zela iruditzen baitzitzaigun. Halere, ikerketa egin ostean, jendearen jarrera ona somatu genuen eta '1.000 baietz' bazkide kanpaina egitea erabaki genuen. Kanpainak bi parte ditu eta lehenengoa bukatu ondoren pozik gaudela esan dezakegu. 70 bazkide berri ditu Elkartek. Bigarrena amaitu ostean egingo dugu balorazio orokorra.

Elkartearen helburuak bazkide kopurua igotzea izan behar du.

2.5.8. LANGILEEN TXOSTENA:

91n ordukako langile bat eta 92an langile profesional bakarra izan genuenean, ez genuen langileei buruzko filosofia txostenik faltan botatzen. Baina gauzak aldatu egin dira. Bost urteren buruan hamaika langile profesional inguru izan ditugu eta egun zortzi langile profesional dauzkagu. Beraz, langileen egoera erregulatzeko eta definitzeko ordua iritsia zela pentsatu genuen. Batzorde batek proposatutako txostena Eremu Sinbolikoak aztertu eta eman zion oniritzia. Momentuz behintzat, eta

behar berririk somatzen ez dugun bitartean, balekoa izan daiteke. Erabakita daukagu langilegoaren egoera eta filosofia. Lana ona bezain beharrezkoa izan zen eta kanpotik ere izan dugu eskabiderik txostena behar zutela esanaz. Izan ere euskara elkarte guztietan pil-pilean dagoen gaia da langilearena.

Txostena hor dago eta beti izango da balekoa gure lanerako.

2.6. NAZIO MAILAKOAK:

Eta amaitu nazio mailako ekimenekin amaituko dugu. Elkartearen lan esparrua batez ere Elgoibar baldin bada ere, dudarik ez nazio mailan ere badugula zer esan eta eginik. Izan ere, gure helburua Elgoibar euskalduntzea da baina beti Euskal Herri euskaldun baten mesedetan.

Beraz, nazio mailako ekimenetan ere gure esku dagoena egingo dugu. Oraingoz lau esparru nagusi izan ditugu nazio mailako ekimenei dagokienean:

2.6.1. IKASTOLEN ALDEKO JAIETARAKO AUTOBUSAK:

Lehen Udal Euskara Batzordeak antolatzen zituen autobusak, baina Elkartearen bigarren etapari ekin genionean guk hartu genuen antolakuntzaren ardura. Jai hauek benetako estimazioa izaten dute gazteen artean batez ere, eta datu bat ematekotan bost urtetan 3.500 lagun inguru mugitu ditugula ezagutaraz dezakegu. Elkartearentzako garrantzitsua da jende kopuru hau Elkartetik pasatzea, besterik ezean non gauden behintzat ikasten baitute gazteek.

Aurrerantzean eskola publikoaren jaietarako autobusak antolatzeko eskaria ere jaso dugu, eta antolatzailleek hala nahi badute, guk ez daukagu inolako arazorik ikastolen aldekoekin egiten dugun gauza bera egiteko.

2.6.2. EUSKALDUNON EGUNKARIA:

Egunkariaren aldeko Elkartearen jarduna luzea da.

Hasi eratze prozesuan eman genuen laguntzarekin hasi ginen. Herri bakoitzean Egunkaria Sortzen Batzordea eratu behar izan zen eta Elgoibarren Elkarte mugitu zen zeregin horretan. Elkarteko susperzailea izan zen Elgoibarren lan hori dinamizatu zuena.

Gero, lehen urtean bizpahiru ekimen izan ziren: Euskal Trena, Euskal Tonbola eta bono salmenta. Hirurak ere Elkartearen arduraren egon ziren.

Duela urtebete akzionista berrien kaptazioa jarri zuen martxan Egunkariak. Elkarteko kideok (Elkartek ezin du dirurik gastatu akzioak erosten, ezin du inor diruz lagundu) 25.000 pezetako hiru akzio erosi genituen, nahiz eta akzioak Elkartearen izenean ipini.

Bonoak eta Trena desagertu baziren ere, Tonbolak jarraitzen du eta urtero izaten dugu beraren ardurara, azaroan hasi eta abendua bitartean. Diru mordoska lortu du Elkartek Egunkariarentzat Tonbolaren bidez: 4 urtetan 1.500.900 pezeta bildu dugu.

Bestalde, Egunkariaren banaketa bereziak egin behar izan direnean ere Elkarteak hartzen du horren ardura.

2.6.3. EUSKARA ELKARTEEN TOPAGUNEA:

Euskara elkarte guztion bilgunea izango den Topagunea eratzeko prozesuan gaude. Orain arte bakoitza bere bideetik ibili bada, aurrerantzean bakoitzak bere autonomia osoa mantenduko du baina denon arteko Topagunea eratuko dugu.

Helburuak asko badira ere, hemen ideia nagusienak azpimarratuko ditugu:

- . Topagunea euskara elkartei euren lanean laguntzeko eratuko da.
- . Topagunea euskara elkarteen arteko komunikazioa eta harremanak sakontzeko eratuko da.
- . Topagunea euskara elkarte berriak sortzen laguntzeko eratuko da.

Hiru helburuokin bat gatozenez, gu ere parte izango gara Topagunean. Lehen esan dugun bezala, guretzat lehentasuna Elgoibar euskalduntzeak dauka baina, ezin diogu inoiz bizkarrik eman nazio mailako ekimenei eta proiektuei.

**ORAIN ARTEKO
BALIABIDEEN
AZTERKETA**

Atal honetan Elkarateak izan dituen baliabideak aztertuko ditugu. Izan ere, bost urte hauetako balorazioa egiterakoan oso garrantzitsua da zein baliabiderekin kontatu dugun jakitea. Ez da gauza bera baliabide onekin edo txarrekin lan egitea.

Azterketa egiterakoan hiru atal bereiztuko ditugu:

- Baliabide pertsonalak.
- Baliabide ekonomikoak.
- Infrastruktura eta materiala.

1. BALIABIDE PERTSONALAK EDO GIZA ERREKURTSOAK:

Bospasei urte hauetan Elkartean lanean jardun duen jendearen zerrenda atal honen amaieran azalduko badugu ere, ikus dezagun nola joan den hurreratzen jendea Elkarteko esparru ezberdinetara:

1.1. HIRUZPALAU LAGUN EZ DESAGERTZEKO ERABAKIAREN ATZEAN:

Txosten honetako beste puntu batean aipatu bezala, hiruzpalau bazkide izan ziren Elkarateak ez zuela desagertu behar erabaki zutenak. Beraz, etapa berria hiru-lau lagun hauekin hasten da.

1.2. ZORTZI LAGUN INGURU ERATZE PROZESUAN LANEAN:

Erabakia hartuta zegoenez, Elkaratearen bigarren etaparen egituraketa berria diseinatu beharra zegoen. 90eko irailean hasi eta 91ko urtarrilean izan zen aurkezpen irikia bitartean, zortzi lagun horiek Elkaratearen itxura berriari forma ematen jardun zuten. Fase honetan, gero hain garrantzitsua izango zen erabakia hartu zen:

- Elkarateak langile profesionalak ere behar ditu.

Momentu honetan langileei buruzko filosofia berria hasten da. Gero Elkarteko dinamizatzailea izango zenak, egunean hiruzpalau ordu sartzen ditu eratze prozesua behar bezala eta garaiz burutzeko. Oraingo lan militantea bakarrik beteko du.

1.3. BEHIN-BEHINEKO ZUZENDARITZA BATZORDEA OSATZEN DA:

91ko urtarrilean Elkaratearen aro berriko aurkezpena egin ostean, behin-behineko Zuzendaritza Batzordea osatzen da. Batzordea sei-zazpi lagunek osatuko dute. Hauen lehen zeregina Elkartera jende berria erakartzea izango da. Prozesu honek lauzpabost hilabeteko iraupena izango du eta 91ko irailerako lehen lantaldeak osatuko dira.

1.4. 92an ELKARTEAK BERE AURPEGI BERRIA ERAKUSTEN DU:

Elkartea 92an hasten da bere behin-betiko egiturarekin. Organoak definitzen dira eta organo hauek osatuko dituzten lehen bazkideak izendatzen dira:

- 15 lagun Eremu Sinbolikoan.
- 8 lagun Zuzendaritza Batzordean.
- 19 lagun lantaldeetan.

Eta hauxe izango da Elkarteak hurrengo urteetan erakutsiko duen aurpegia, hiru organo horiek eta organo bakoitza osatzen duten pertsonak.

Alabaina, proiektu berriak martxan jarri ahala, profesional eta militante berriak azalduko zaizkigu. Eta aurrerantzean prozesu bera izango da: Lantalde bat prestatzen da proiektua idazteko eta proiektua martxan jartzearekin batera, proiektu horri dagozkion langile profesional eta militanteak izendatzen dira.

Azalpen hauek eman ostean, ikus dezagun bost urte hauetan Elkartean lanean aritu diren elgoibartarrak zein diren.

Urtez-urte ikusiko ditugu urte horretan izandako proiektuetan erreparatuz.

■ 90eko maiatza: ELKARTEA EZ DESAGERTZEKO ERABAKIA:

- Iñasio Garmendia.
- Iñaki Konde.
- Sebas Larrañaga.

■ 90eko iraila-91ko uztaila: TALDE ERAGILEA:

- Iñasio Garmendia.
- Sebas Larrañaga.
- Imanol Larrañaga
- Ales Arrieta.
- Izaskun Arozena.
- M. Anjeles Exposito.
- Kristina Zuazubizkar.
- ...

(92a arte ez daukagu idatzizko dokumenturik, buruz ateratakoak dira. Beraz, akatsen bat egon daiteke.)

1.5. 92. URTEA:**■ EREMU SINBOLIKOA:**

Itziar Agirregomezkorta, Maite Rementeria, Alberto Ansuategi, Lorea Gorostiaga, Anjel Ugarteburu, Inazio Garmendia, Ales Arrieta, Imanol Larrañaga, Lorea Mujika, Kristina Zuazubizkar, Abel Irizar, Jasone Osoro eta Hirune Betelu.

■ ZUZENDARITZA BATZORDEA:

· Ales Arrieta	· Abel Irizar
· Iñasio Garmendia	· Lorea Mujika
· Imanol Larrañaga	· Jasone Osoro
· Kristina Zuazubizkar	· Hirune Betelu

Suspertzailea egun osoz liberatzen da.

■ HEZKUNTZA TALDEA:

· Lorea Mujika	· Jose Luis Azpillaga
· Iñasio Garmendia	· Miren A. Arrieta
· Kristina Zuazubizkar	

■ MOTIBAZIO TALDEA:

· Hirune Betelu	· M.A. Exposito
· Jon Zabala	· Juan M. Elustondo
· M. R. Garate	

■ KULTURA TALDEA:

· Abel Irizar	· Sebas Larrañaga
· J.L. Ibartzabal	· Anjel Ugarteburu
· Pake Garzia	· German Meabe

■ KOMUNIKABIDE TALDEA:

· Jasone Osoro	· Maite Rementeria
· Alberto Agirreazaldeg	

■ 92an idatzi zen BARRENen proiektua. Proiektua pentsatzeko ardura honako hauek izan zuten:

· Alberto Agirreazaldeg	· Jon Zabala
· Montse Arregi	· Rosa Iriondo
· Edurne Bilbao	· Agurtzane Garzia
· Imanol Larrañaga	

Proiektuaren erredakzioaz arduratu zirenak:

· Maite Rementeria eta Jasone Osoro.

Proiektuaren aurkezpenak egiten lagundu ziguntenak:

· M. Anjel Mujika,...

■ GUZTIRA:

Profesional bat egun osoz, lagun bat orduka eta 22 militante.

1.6. 93. URTEA:

■ EREMU SINBOLIKOA:

Itziar Agirregomezkorta, Maite Rementeria, Alberto Ansuategi, Lorea Mujika, Lorea Gorostiaga, Anjel Ugarteburu, Iñasio Garmendia, Ales Arrieta, Imanol Larrañaga, Kristina Zuazubizkar, Abel Irizar, Jasone Osoro, Hirune Betelu, Maite Zelaia, Iñaki Gil eta M.A. Mujika.

■ ZUZENDARITZA BATZORDEA:

· Ales Arrieta · Kristina Zuazubizkar
 · Iñasio Garmendia · Lorea Mujika
 · Imanol Larrañaga · Abel Irizar
 · Jasone Osoro

■ ADMINISTRAZIOA:

· Josune Fernandez (praktiketan)

■ HEZKUNTZA TALDEA:

· Lorea Mujika · Kristina Zuazubizkar
 · Iñasio Garmendia · J. L. Azpillaga
 · M. A. Arrieta

■ EUSKARA-FESTA TALDEA:

· Abel Irizar · Sebas Larañaga
 · J.L. Ibartzabal · M.A. Exposito
 · J.M. Elustondo · Jon Zabala

■ BERTSO TALDEA:

· German Meabe · Pake Garzia · Izaskun Elizburu

Bertso eskolako irakaslea: German Meabe (profesionala)

■ BARREN astekaria:

· Zuzendariak: A. Agirreazaldegia eta I. Agirregomezkorta.
 · Kazetaria: Ainhoa Lodoso (profesionala)
 · Maketatzaila: Maite Rementeria (profesionala)
 · Publizista: Amaia Leiaristi (profesionala)
 · Erredakzio Kontseilua: J.I. Sarasua, Rosa Iriondo, Edurne Bilbao, Iñaki Arrieta eta Antton Bergara.
 · Euskara arduraduna: Anjel Ugarteburu.
 · Kolaboratzaileak: 12 lagun.

■ NAZIO MAILAKO EKIMENAK:

· Lander Betelu.

■ GUZTIRA: 4 profesional egun osoz, ordukako 1, praktiketako 1, 12 kolaboratzaile eta 27 militante.

1.7. 94. URTEA:

■ EREMU SINBOLIKOA:

Itziar Agirregomezkora, Maite Rementeria, Alberto Ansuategi, Lorea Mujika, Lorea Gorostiaga, Anjel Ugarteburu, Iñasio Garmendia, Ales Arrieta, Imanol Larrañaga, Kristina Zuazubizkar, J.L. Ibartzabal, Abel Irizar, Jasone Osoro, Hirune Betelu, Maite Zelaia, Iñaki Gil eta M.A. Mujika.

■ ZUZENDARITZA BATZORDEA:

· Ales Arrieta	· Amagoia Arakistain
· Iñasio Garmendia	· Ane Gokoetxea
· Imanol Larrañaga	· M.A. Mujika
· Maite Zelaia	· Iñaki Gil

■ ADMINISTRAZIOA:

· Josune Fernandez (6 orduz, profesionala)
· eta Anjeles Ortuoste.

■ AISIALDI TALDEA:

· Amagoia Arakistan	· Alazne Ezkurra
· Susana Gurrutxaga	· Maria Rezola

■ ELKARTEAK EUSKALDUNTZEN:

· Pello Arrieta	· Jesus Gerenabarrena
· J.K. Sasiain	· Imanol Larrañaga

■ KULTURA TALDEA:

· Ane Gokikoetxea	· Aitor Mujika
· Lorea Mujika	· Sebas Larrañaga
· Bixente Alonso	· Idoia Esnaola
· Itziar Ondarra	

■ BERTSO TALDEA:

· Izaskun Elizburu	· German Meabe	· Pake Garzia
--------------------	----------------	---------------

· Irakasleak: German eta Irati Agirreazaldegia

■ BARREN astekaria:

· Zuzendariak: Maite Rementeria eta Alberto Agirreazaldegia.
· Maketatzaileak: Maite Rementeria eta Edu Sanz.
· Kazetariak: Ainhoa Lodoso eta Jasone Osoro.
· Publizista: Nekane Etxaniz.
· Euskara arduraduna: Anjel Ugarteburu.
· Kolaboratzaileak: 29 lagun.

■ NAZIO MAILAKO EKIMENAK:

· Lander Betelu.

■ GUZTIRA: 5 profesional egun osoz, 3 ordukako, 29 kolaboratzaile eta 35 militante.

1.8. 95. URTEA:

■ EREMU SINBOLIKOA:

Itziar Agirregomezkorta, Maite Rementeria, Alberto Ansuategi, Lorea Mujika, Lorea Gorostiaga, Anjel Ugarteburu, Iñasio Garmendia, Ales Arrieta, Imanol Larrañaga, Kristina Zuazubizkar, J.L. Ibartzabal, Abel Irizar, Jasone Osoro, Hirune Betelu, Maite Zelaia, Iñaki Gil eta M.A. Mujika.

■ ZUZENDARITZA BATZORDEA:

· Iñasio Garmendia	· Amagoia Arakistain	· Iñaki Gil
· Imanol Larrañaga	· Ane Goikoetxea	
· M.A. Ortuoste	· M. A. Mujika	

■ ADMINISTRARIA: Josune Fernandez eta Amaia Martin.

■ GERENTZIA: Rafa Alvarez eta Anjeles Ortuoste.

■ AHOLKULARI JURIDIKOA: Ramon Fernandez de Jauregi.

■ DIRULAGUNTZEN ARDURADUNA: Abel Irizar.

■ AISIALDI TALDEA:

· Amagoia Arakistain	· Alazne Ezkurra
· Susana Gurrutxaga	· Marije Iranzo eta 26 begirale

■ ELKARTEAK EUSKALDUNTZEN:

· Pello Arrieta	· Jesus Gerenabarrena
· J.K. Sasiain	· Imanol Larrañaga

■ KULTURA TALDEA:

· Ane Goikoetxea	· Aitor Mujika
· Lorea Mujika	· Sebas Larrañaga
· Joseba Gorosabel	· Idoia Txurruka
· Delia Irizar	· Jon Barandiaran

■ BERTSO TALDEA: Izaskun Elizburu German Meabe eta Pake Garzia

■ BARREN ASTEKARIA:

- Ainhoa Lodoso (Zuzend.)
- Andres Alberdi eta Izaskun Elizburu (Erredakzio Aholk.)
- Jasone Osoro (Kazetaria)
- Maite Rementeria (Maketatzailea)
- Nekane Etxaniz (Publizista)
- Kolaboratzaileak: 25

■ NAZIO MAILAKO IHARDUERAK:

· Lander Betelu	· Juan Mari Mendizabal
· J.Mari Elustondo	· Ane Goikoetxea

■ GUZTIRA: 7 profesional, 2 ordukako, 26 begirale, 26 kolaboratzaile eta 41 militante.

1.9. 96. URTEA:

■ EREMU SINBOLIKOA:

Itziar Agirregomezkorta, Maite Rementeria, Alberto Ansuategi, Lorea Mujika, Lorea Gorostiaga, Anjel Ugarteburu, Iñasio Garmendia, Ales Arrieta, Imanol Larrañaga, Kristina Zuazubizkar, J.L. Ibartzabal, Abel Irizar, Jasone Osoro, Hirune Betelu, Maite Zelaia, Iñaki Gil eta M.A. Mujika.

■ ZUZENDARITZA BATZORDEA:

· Iñasio Garmendia	· Asier Zengotita
· Rafa Alvarez	· Maje Arrese
· Imanol Larrañaga	· M.A. Mujika
· Iñaki Gil	

■ ADMINISTRAZIOA: Amaia Martin

■ GERENTZIA: Rafa Alvarez eta Anjeles Ortuoste

■ DIRULAGUNTZEN ARDURA: Abel Irizar

■ ATXUTXIAMAIIKA BEGIRALE TALDEA:

- Zuzendaria: Marije Iranzo
- Jarduera arduradunak: Eli Moreno, Olatz Oñederra, Judith Loiola eta Amaia Mugerza.
- Begiraleak: Beste 26 begirale.

■ AISIALDI BATZORDEA:

- Zuzendaria: Marije Iranzo
- Batzordekideak: Alfonso Guillo, Juan Mari Elustondo, Amaia Jauregi, M. Pilar Alonso, Juani Arakistain/Arantzazu Goikoetxea eta Izaskun Estibariz.

■ GUREAN BAI SEGIMENDURAKO BATZORDEA:

- Batzordekideak: Pello Arrieta, Jesus Gerenabarrena, J. Gurutz Sasian, Kristina Zuazubizkar, Gotzon Arrieta, Itziar Goñi eta Pello Mendizabal.
- Teknikaria: Abel Irizar

■ KULTURA TALDEA:

· Sebas Larrañaga	· Lorea Mujika
· Joseba Gorosabel	· Delia Irizar
· Idoia Txurruka	· Ane Goikoetxea

■ BERTSO TALDEA:

- Germen Meabe, Izaskun Elizburu eta Pake Garzia.

■ BARREN astekaria:

- Zuzendaria: Ainhoa Lodoso
- Erredakzio Aholkulariak: Andres Alberdi eta Imanol Larrañaga
- Kazetaria: Jasone Osoro
- Maketatzaileria: Maite Rementeria
- Publizista: Miriam Aldazabal
- Kolaboratzaileak: 11 lagun

■ NAZIO MAILAKOAK:

- Lander Betelu
- Juan Mari Mendizabal
- Juan M. Elustondo
- Ane Goikoetxea

■ **GUZTIRA:** 7 profesional, 2 ordukako, 26 begirale, 22 kolaboratzaile eta 38 militante.

GUZTIRA (92-96):

. **Militanteak:** 54

. **Kolaboratzaileak:** ... 21 (*)

. **Profesionalak:** 11 profesional eta ordukako bat.

(*) OHARRA: Hemen ez ditugu BARRENen iritzi artikulak idatzi dituztenak sartu.

1.10. MILITANTE ETA PROFESIONALEN ZERRENDA:

MILITANTE ETA PROFESIONALAK:

- Itziar Agirregomezkorta
- Alberto Agirreazaldegi
- Alberto Ansuategi
- Andres Alberdi
- Miriam Aldazabal
- Bixente Alonso
- Rafa Alvarez
- Amagoia Arakistain
- Izaskun Arozena
- Maje Arrese
- Ales Arrieta
- Miren Arrate Arrieta
- Pello Arrieta
- Jose Luis Azpillaga
- Jon Barandiaran
- Hirune Betelu
- Lander Betelu
- Izaskun Elizburu
- Juan Mari Elustondo
- Idoia Esnaola
- Nekane Etxaniz
- M. Anjeles Exposito
- Alazne Ezkurra
- Josune Fernandez
- Miriam R. Garate
- Iñasio Garmendia
- Pake Garzia
- Jesus Gerenabarrena
- Iñaki Gil
- Ane Goikoetxea
- Lorea Gorostiaga
- Joseba Gorosabel
- Susana Gurrutxaga
- J. Luis Ibartzabal
- Marije Iranzo
- Abel Irizar
- Delia Irizar
- Iñaki Konde
- Sebas Larrañaga
- Imanol Larrañaga
- Amaia Leiaristi
- Ainhoa Lodoso
- Amaia Martin
- Lorea Mujika
- Aitor Mujika
- M. Anjel Mujika

KOLABORATZAILEAK:

- Montse Arregi
- Edurne Bilbao
- Rosa Iriondo
- Agurtzane Garzia
- Ramon F. de Jauregi
- Juan Mari Mendizabal
- Igor Sota
- Elena San Martin
- Alfonso Gillo
- Amaia Jauregi
- M. Pilar Alonso
- Juani Arakistain
- Arantzazu Goikoetxea
- Izaskun Estibariz
- Itziar Goñi
- Gotzon Arrieta
- Pello Mendizabal
- Irati Agirreazaldegi
- Iñaki Arrieta
- Antton Bergara
- J. Inazio Sarasua

- German Meabe
- Itziar Ondarra
- Jasone Osoro
- M. Anjeles Ortuoste
- Maite Rementeria
- Maria Rezola
- J. Kurutz Sasiain
- Edu Sanz
- Anjel Ugarteburu
- Jon Zabala
- Maite Zelaia
- Asier Zengotita
- Kristina Zuazubizkar

1.11. GOGOETA:

54 militante, 21 kolaboratzaile eta 11 profesional izan dira bospasei urte hauetan Elkartean izan ditugun baliabide humanoak. Hauei momentu konkretuetan laguntzen izan ditugun hainbat herritar gehitu behar diegu.

Ez da erraza kopuru hauek ondo ala gaizki dauden baloratzea. Gaur egungo gizartea militantziatik nahiko urruti dabilela jakinda, baleko kopuruak direla esan dezakegu. Bilakaera ere positiboa izan dela ikus dezakegu; hasi 22 militanterekin hasi ginen eta egun 38ren inguruan gabiltza.

Dena dela, gure lanak biderkatzailea izan behar duela esan genuen. Hasieran batuketa izango dena, eta kostata gainera, momenturen batean biderketa bilakatu behar da. Jendeak gero eta errazago hurbildu behar du Elkartera. Gainera beti jende bera ez ibiltzeko ahalegina egin behar dugu. Ezin dugu Elkartea beti pertsona berberen eskuetan dagoen itxura eman, jende desberdina ikusi behar da Elkartearen bueltan. Eta hau ez da lortzen daudenak bidalita, horien erreleboak bilatuz baizik.

Bai profesionali dagokienean eta bai militanteei dagokienean, ur korrienteak izan behar ditu Elkarteak, ur geldiak (hasieran urik onenak izanda ere) usteldu egiten baitira denborarekin.

Beraz, konklusio bezala zera esango genuke:

- Kopuruak ondo daudela.
- Orain batuketa dena laster biderketa bihurtu behar dela.
- Jendearen errekanbioak oso garrantzitsuak eta mesedegarriak direla.

2. BALIABIDE EKONOMIKOAK:

2.1. Datuak:

Atal honetan 92tik 96ra Elkarteak izan dituenduru gorabehera batzuk ikusi eta aztertuko ditugu:

■ 92:

· Aurrekontua:	5.802.601
· Dirulaguntza publikoa:	2.000.000
· Bazkide kuota:	1.733.600
· Diru sarrera propioa (D.S.P.):	1.700.000
· Soldatak:	720.000

■ 93:

· Aurrekontua:	24.404.997
· Dirulaguntza publikoa:	12.056.000
· Bazkide kuotak:	1.842.000
· D.S.P.:	9.373.200
· Soldatak:	10.418.000

■ 94:

· Aurrekontua:	30.088.686
· Dirulaguntza publikoa:	15.955.200
· Bazkide kuotak:	1.794.792
· D.S.P.:	11.901.675
· Soldatak:	13.824.491

■ 95:

· Aurrekontua:	34.064.288
· Dirulaguntza publikoa:	16.665.522
· Bazkide kuotak:	1.849.500
· D.S.P.:	14.351.500
· Soldatak:	17.739.213

■ 96:

· Aurrekontua:	40.033.130
· Dirulaguntza publikoa:	21.005.000
· Bazkide kuotak:	2.050.000
· D.S.P.:	14.494.500
· Soldatak:	20.041.030

2.2. Gogoeta:

Ikus dezagun zer azpimarra daitekeen diru kopuru hauei dagokienean:

- **AURREKONTUAK:** urtero gora egin duela ikus dezakegu. BARREnekin 19 milioiko gorakada izan ondoren, harrezkero 5 milioi inguruko gorakada egin du urtero. 5 urtetan 35 milioian handitu da Elkartearen aurrekontua, 40ra iritsiz. Benetan aurrekontu serioekin gabiltzala konturatu behar dugu eta gerentzia on batek daukan garrantzia azpimarratu behar gaude. Gerentzia hau militanteen arduraren egoteak areagotu egiten du organo honen meritua.

- **DIRULAGUNTZA PUBLIKOA:** Aurrekontuaren erdia diru-publikotik lortu dugu urtero. Diru publikoa eskupekoa bezala jasotzen ez dugun arren, oso arriskutsua izan daiteke aurrekontuaren erdia diru-publikotik zintzilik egotea. 2 milioirekin hasi zena, 96an 21 milioikoa izan da. Diru publikoa jasotzen segitu egin behar dugu baina ezin gara inoiz bere menpean egon.

- **BAZKIDE KUOTAK:** Gure asmoa bazkide kuotetatik Elkartearen estruktura zentrala matentzea zen: suspertzailearen soldata, argia, telefonoa, e.a. Baina ezin dugu. Oso diru sarrera txikia da bazkide kuotetatik jasotzen duguna. Bazkideak asko bagara ere, aurrekontuaren % 5a baino ez dugu lortzen bazkide kuotetatik. Gutxitxo aukeran ! Sei urte hauetan ez dugu kuotarik jaso eta akaso zerbait igotzearekin pentsatzen hasi beharko dugu.

- **DIRU SARRERA PROPIOAK:** Denetatik puntu garrantzitsuena da honako hau. Atal honek Elkartek dirua sortzeko duen gaitasuna azaltzen digu, autofinanziaziorako kapazitatea hain zuzen ere. Hitz bitan esateko, bakarrik bizitzeko zer-nolako aukerak dituen erakusten digute kopuru hauek. 92an aurrekontuaren % 20a sortzen genuen guk, 93an % 37a, 94an % 40a, 95ean % 41'7a eta 96an % 37'5a. Oso bilakaera ona izan dugula ikus dezakegu. 92koa oso txikia bada ere, urtetan gora egin dugu eta hau oso garrantzitsua da. Autofinanziazioaren bidetik segitu behar dugu. 96an behera egitearen arrazoia ere detektatuta daukagu: GUREAN BAI Hitzarmenak ez du inolako diru sarrerarik eta Udalaren dirulaguntzari esker finantziatzen da. Baina 95ean aurrekontuaren % 41'17a iristea aintzakotzat hartu eta pozteko kopurua da.

- **SOLDATAK:** Amaitzeko, soldatak aztertuko ditugu. Lehen urtean garrantzirik izan ez bazuen ere, 96an aurrekontuaren erdia soldatetan doa. Asko ala gutxi da? Hemen bi gauza artertu behar direla uste dugu:

- Bat, dauden langileak behar diren ala ez, eta lan orduak ondo finkatuta al dauden.
- Bi, soldatak neurrikoak diren ala ez.

Bi-biak ondo aztertuta dauzkagu eta ez dugu uste ezer goitik daukagunik, ez langileak eta ez soldatak.

3. INFRAESTRUKTURA ETA MATERIALA:

Ikus dezagun 90etik hona zein bilakaera izan duten Elkartearen infraestrakturak eta materialak:

■ **90:**

· Hasi Lorito-ko lokalean hasi ginen. Ez genuen inolako materialik, mahai bat eta apalategi bat kenduz gero.

■ **91:**

· Urte honetan Elkarreak Ubitarten duen egoitzara pasa ginen. Aurretik Ikastolako gela bezala erabiltzen zen. Bulegoa, telefonoa, bi komun eta batzarretarako gela handi bat genituen. Materiala, berriz, idazmakina zahar bat, armarioa eta telefonoa ziren lokalean aurkitu genuena. Loritoko mahaia eta apalategia Ubitartera ekarri genituen.

■ **92:**

· Idazmakinak bere azkenak ematen ditu. Lehen ordenagailua sartzen da Elkartean.

■ **93:**

· Otsailean BARRENeK egoitza berria estrenatzen du: Nafarroa enparantzan dagoen lokala lagatzen dio Udalak asko kostatuta eta gero.

· BARRENeKin batera material berria ere sartzen da: maketaziorako ordenagailua, testuetarako beste bat, fax-a, argazkietarako kamerak, grabagailuak eta astekarirako beharrezkoak diren altzariak.

· Urte honetan, Ubitarteko lokalean ere aldaketak izango dira. Anjeles Ortuostek beste ordenagailu bat lagatzen digu eta lokalaren egokitzapena egiten dugu: Administraria sarrerako gelan geratuko da eta suspertzailea barrura pasako da. Lehengo batzar gela bitan banatuko dugu: idazkaritza eta batzar gela.

· Alesek Azkoitiko Danobatetik ekarritako altzariei esker, lokala moduz jatzeko aukera daukagu.

■ **94:**

· Urte honetan ez da aparteko aldaketarik izango. Lehengoarekin mantenduko gara.

· BARRENeN obra batzuk egingo dira eta publizistari toki berria izendatuko zaio.

■ **95:**

· Aisialdi proiektuarekin batera, idazkaritzan beste mahai bat egokituko da begirale zuzendariarentzat.

· Begirale Taldeak mugitzen duen materiala kontutan izanik, Leku-Eder-en garaje bat alokatzea erabakitzen du Gerentziak. Anjelesi esker garajea Elkarteko almazen bezala erabiliko dugu.

■ **96:**

Urte honetan inbertsio dexente egingo da Elkartean:

· Gurean Bai Hitzarmena jartzen da martxan eta idazkaritzan teknikariarentzako toki egingo da: mahaia eta ordenagailua (BARRENeKoa).

· Telefono linea berria eta fax-a ere jarriko dira. Telefono zentralita jarriko da dena behar bezala bideratzeko.

· BARRENeN maketaziorako ordenagailu berria erosiko da 800.000 pta ordainduta.

3.2. IRAKURKETA:

Ikusten dugun bezala Elkarreak ez die beldurrik izan inbertsioei. Hasi ezer gutxirekin hasi baginen ere, urteek eta beharrek aurrera egin duten heinean, materialez eta infraestruturaz hornitzen joan gara. Beharra somatu dugunean bi aldiz pentsatu gabe gastatu dugu dirua eta honek, besteak beste, arduradunen ausardia eta konfidantza erakusten du. Baina dena ez da diruarekin lortutakoa izan. Material dexente dago jendeak handik eta hemendik lortutakoa, eta lorpenen artean ezer azpimarratu behar badugu, hau BARREneko lokala da. Orain daukagun lokala Udalak lagatakoa da baina izerdi asko atera behar izan genuen bera lortzeko. Udalaren barnean denek ez zuten lokal hori gure eskuetan lagatzerik nahi, itxura denez ez ginen denen gustukoak. Baina eskaria arrazoizkoa zen eta orduan Alkatea zenaren aginduz, J. Inazio Elkoro-Iribe Jauna, lokala eskuratu ahal izan genuen.

NOLAKOA IZAN DA FUNTZIONAMENDUA?

Atal honetan Elkarateak sei urte hauetan izan duen funtzionamendua aztertuko dugu. Elkarateko organoak banan-banan izendatuko ditugu nola funtzionatu duten aztertuz. Halaber, beste pare bat gai ere ikutuko ditugu.

Ikus ditzagun, beraz, Elkarateko organoak eta euren funtzionamendua:

1. BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA:

Batzar honen helburua bazkideei Elkarateari buruzko informazioa ematea da: aurreko urtean egindakoaren balorazioa azaldu eta datorren urteko asmoak eta aurrekontua aurkeztea.

Urtean behin egin dugun batzar honek ez du estimazio handiegirik izan. Elkarateko organo erabakiorrena izanik, estatutuetan hala dio behintzat, benetan kaxkarra izan da bere aportazioa eta ez dugu helburua bete. Batzarrak bikain prestatuta egon dira sei urteotan baina bazkideen partetik izan duen erantzun kaxkarrak (30 lagun inguru urtero) ilundu egin dute Zuzendaritzek egindako lana.

Bazkideak Batzar Orokorrera joatea askok pentsatzen duten baino garrantzitsuagoa da. Izan ere bertan ematen da Elkarateari buruzko informazio guztia eta hori ezagututa bakarrik lor dezakegu Elkaratearekiko atxikimendua. Informaziorik ez duenak ez du bere burua Elkarateko parte sentituko, ez du ezer aportatuko.

Bazkide guztiei gutun bana bidaltzen zaie batzarraren berri emanez, baina hau ez da nahikoa jendea batzarrera eramateko.

Batzarrak suspertzaileak prestatzen ditu Zuzendaritzaren oniritziarekin.

Zer egin daiteke jendea batzarrera eramateko? (Ikus 7. atala, 'Aztertu beharreko gaiak'.

2. EREMU SINBOLIKOAREN BATZARRA:

Irailaren bukaeran joaten gara urtero Aubixako aterpetxera. Paraje benetan aproposa egin nahi dugunerako. Astebukaera bat aprobetxatuz, 25-30 lagun biltzen gara urtero Elkaratearen nondik norakoak finkatzeko, aurretik egindakoa baloratu eta aurrera begira egiteko daudenak aztertzeko. Batzarrak ondo joan direla esan dezakegu, lan-giro aproposan eta jendearen partehartze onarekin (lantalde sistemak lagundu digu jendeak parte hartzera).

Lagunarteko giroa ere aproposa izan da eta egunak ezezik gauak ere aprobetxatu izan ditu batek baino gehiagok. Helburua batzar honetara urtero jende berria eramatea da. Beraz, organo honi aurrez jarritako helburuak bete ditugula esan dezakegu.

Kasu honetan ere, batzarrak suspertzaileak prestatzen ditu Zuzendaritzaren aholkularitzapean.

3. ZUZENDARITZA BATZORDEA:

Organo hau da Elkarateak lanerako duen organo garrantzitsuena. Bera da Elkaratearen urteko jarduren arduradun eta erantzule nagusia.

Gure asmoa Zuzendaritza Batzordea zortzi laguneko taldea izatea zen. Hasi hala hasi baginen ere, denborak aurrera egin ahala, bidean jendea galtzen joan gara. Inork ez du alde egin iritzi arrazoiengatik baina beti egon da motiboren bat mahaia behar bezala osatuta ez edukitzeko.

Honen ondorioz edo, Zuzendaritzak oso gutxitan (inoiz ez esateagatik) izan du izan beharko lukeen protagonismoa eta garrantzia. Zuzendaritza suspertzailearen eskuetan egon izan da denbora gehienez eta hau oso arriskutsua da. Elkarateko organo garrantzitsuena ezin da pertsona baten eskuetan egon, Elkartea hori baino gehiago baita, edo izan behar du behintzat.

Erabakiei dagokienez, erabakiak banatuagoak egon dira. Lehendakariak, bai lehengoak eta bai oraingoak, oso ondo bete dituzte euren funtzioak eta erabaki garrantzitsu guztien atzean egon dira.

Beraz, ez dugula asmatu aitortu behar dugu argi eta garbi. Elkaratearen urteroko norabidea ez du Zuzendaritza Batzordeak eraman, altuenez bi-hiru lagunen esku egon da eta askotan bakarraren eskuetan ere bai. Gai honi argi gorria piztea ezinbestekoa da gauzak bide onera ekartzea nahi badugu.

4. LANTALDEAK:

Lantaldeak Elkaratearen urteko helburuen arabera eratzen ditugu. Elkaratearen urteko helburuak eta zereginak kontutan hartuta, helburu eta zeregin horiek era errazenean bideratzeko dira lantaldeak. Beraz, hainbat lantalde ezagutu ditu Elkarateak sei urte hauetan. Ikus dezagun zein eta zertarako izan diren:

■ 92:

- Motibazio taldea: Elkaratearen propaganda egiteko.
- Kultura taldea: Eskaintza kulturala prestatzeko.
- Hezkuntza taldea: Haurrei buruzko gai ezberdinen ardura.
- Komunikabide taldea: BARRENen proiektuaren ardura.

■ 93:

- Motibazio taldea desagertzen da eta EUSKARA-FESTA Taldea eratzen dugu: taldearen zeregina EZ DOK AMAITU! ekimena antolatzea izango da.
- Gainontzeko taldeak bere horretan mantentzen dira.
- BARRENen ardura ez du lantalde batek izango, kolaboratzaile konkretu batzuk baizik.

■ 94:

- Hezkuntza taldea desagertu eta Aisialdi Taldea eratzen dugu. Taldearen ardura hiru urteko aisialdi plangintza prestatzea izango da.
- Elkarateak Euskalduntzen T.: Elkarateak euskalduntzeko Hitzarmena prestatzeko ardura.
- Kultura taldeak bere bidean segituko du.

■ 95:

- Aisialdi, Elkarreak Euskalduntzen eta Kultura taldeak dauzkagu urte honetan lanean.
- Urte honetan diru-kontuak eramango dituen bikote bat izendatzen da, aurrerantzean Gerentzia deituko diogu.

■ 96:

- Urte honetan lantalde bakarra azalduko zaigu: Kultura taldea.
- Aisialdi plangintza eta Gurean Bai Hitzarmena martxan daudenez, bi proiektuen segimendua egiteko ardura izango duten Batzordeak jarriko dira martxan: Aisialdi Batzordea eta Hitzarmenaren Segimendurako Batzordea.

Lantalde hauetaz gain, IDAZKARITZA eta NAZIO MAILAKO EKIMENAK ere badauzkagu.

Idazkaritzatik Elkartearen gainontzeko ekimenak bideratzen dira: kanpainak, batzarrak, plangintzak, ikerketak, txostenak,...

Nazio Mailako ekimenak gauzatzeko, berriz, hiruzpalau laguneko talde bat daukagu. Zerbait dagoenean suspertzailea harremanetan jartzen da beraiekin eta eurak dira lana egiten dutenak.

Lantaldeak astean ordu eta erdiko lana izaten dute normalean.

Orokorrean lantaldeak ondo funtzionatu dute. Halere, hemen gauza bat azpimarratu nahi genuke:

. Profesionalik izan ez den lantaldeetan arazoak izan dira luzarora lanak nahi bezala egiteko.

Sei urte hauetan Kultur taldea izan da profesionalik gabe lanean aritu den lantalde bakarra. Hasieran emaitzak onak izan baziren ere, gerora horrela lan egitea zaila dela konturatu gara. Astean ordubeteko lana bakarrik eginda oso zaila da kultur eskaintza serio eta iraunkorra prestatzea.

Beraz, lantaldeetako protagonistak militanteak izan behar dutela uste dugu, baina lantaldeek profesionalen laguntza behar dutela somatzen dugu.

Lehen esan bezala lantalde guztiek profesionalen laguntzarekin lan egiten dutenez, Kultura taldeari irtenbideren bat topatzea izango da lantaldeei buruz daukagun zereginetariko bat.

5. SEGIMENDURAKO BATZORDEAK:

Batzorde hauek Aisialdi proiektuarekin eta Gurean Bai Hitzarmenarekin jarri ditugu martxan.

Izan ere, orain arte lantaldeak Elkarteko jendez bakarrik osatuta zeuden, lana Elkarteari bakarrik zegokiolako. Bi proiektu hauek, berriz, beste erakunde batzuei ere zuzen-zuzenean ikutzen die. Beraz, segimendua Elkartek ezezik beste erakunde horiek ere egin behar dute.

Aisialdi Batzordean ikastetxeetako irakasleak eta gurasoak inplikatu ditugu, eurak baitira plangintzako protagonistekin, haurrekin, harreman zuzenena dutenak.

Gurean Baiko Segimendu Batzordea, berriz, Elkarteko eta Udaleko jendearekin osatuta dago. Bi erakunde horiek dira Hitzarmenaren arduradunak eta biena da gauzak behar bezala bideratzearen erantzunkizuna.

Batzorde hauek ezin ditugu ondo geratzeko eratu. Duten garrantzia eta protagonismoa eman behar diegu, batzordeek izan behar dute plangintzen nondik norakoak definitu behar dutenak. Teknikariak batzordeek hartutako erabakiak gauzatzeko eta errazteko langileak dira, eta ez alde-rantziz. Beti erraza ez bada ere, ideia hau oso ondo zaindu behar dugu, honek askotan gauzak polikiago egitea eskatuko badigu ere. Kasu honetan ere Zuzendaritza Batzordearekin gertatzen dena gauza bera gertatuko zaigu bestela.

6. PROFESIONALAK ETA MILITANTEAK:

Elkartearen etapa berrian hartutako erabaki garrantzitsuenetariko baten aurrean gaude. Elkartearen lanak profesionalen eta militanteen artean bideratu behar ditugula izan zen erabaki hori.

Elkartearen lehen etapan horrelakorik burutik pasa ere egin ez arren, gauzak aldatzen joan dira eta lan metodologiak ere aldatetak behar zituela pentsatu genuen.

Formula berria '**langile profesionalen militantzian eta militanteen profesionaltasunean**' oinarritu nahi dugu. Hau da, langile profesionalak militanteak ere izan behar dute, eta militanteek ahalik eta lan profesionalena egiten saiatu behar dute, lana ondo egiten alegia. Izan ere, gure uste-tan oso garai garrantzitsu baten aurrean gaude, oraingoan asmatu egin behar dugu eta horretarako behar den guztia egiteko prest egon behar dugu. Oraingo saiakerak kale egiten badigu oso zaila izango da berriz ere horrelako elkarte bat martxan jartzea.

Beraz, langile profesional eta militanteen arteko uztarketa orekatua da topatu nahi duguna. Halere, profesionalak derrigorrezkoa denean bakarrik hartuko ditu Elkartek, proiektu jakin bat ganoraz gauzatzeko ezinbestekoa denean bakarrik.

Proiektu guztiek profesionalaz eta militantez osaturik egon behar dute, eta Elkarteko lehen lehen-dakariak esaten zuen bezala, bai Elkartek eta bai Elkarteko proiektuek militanteen aginduetara egon behar dute. Militanteek agindu behar dute Elkartean, eta profesionalak aurrekoak erabakita-koa gauzatzeko hartuko dira. Halere, profesional guztiak bazkide eta militante ere badirenez, bazkide diren partetik eta betetzen duten kargua kontutan hartuta, eurak ere izango dute zeresana Elkartearen eta Elkarteko proiektuen erabakietan.

7. SUSPERTZAILEAK / TEKNIKARIAK:

Eremu Sinbolikoaren batzarren batean hausnarketa hau egin genuen: Elkarreak dependentzia handiegia dauka suspertzailearekiko. Hau oso arrikutsutzat jotzen genuen, pertsona bakar batek Elkartean horrenbesteko pisua izatea oso arriskutsua izan zitekeela aipatzen genuen.

Izan ere, pertsona bat astean bost egun eta egunean zortzi orduz Elkartean jarduteak, komeni ez den ardura eta erantzunkizuna bereganatzea dakar. Baina garrantzitsua gu honetaz jabetzea da, gaixoa somatu ondoren errazagoa baita sendabidean ipintzea.

Zorionez, denborarekin gauzak asko aldatu dira, onera egin dute. Gaur egun suspertzailearen ardurara nagusia Elkarrearen proiektu berrien azterketa eta diseinua da. Daudenak gainbegiratzen eta laguntzen baditu ere (horretarako ere ordainduko diogu ba!) bere funtzio nagusia bide berriak aztertu eta diseinatzea da. Martxan jarritako proiektu guztiak suspertzailerik gabe aurrera egiteko gauza dira. Hau oso garrantzitsua dela konturatu behar dugu, orain hiru urte ezin baikenuen gauza bera esan. Beraz, suspertzailearen behar asfixiantea, proiektuei dagokienean batez ere, eten dugula esan dezakegu. Aurrerantzean, Elkarrearen tentsio puntua mantendu, behar berriak detektatu eta proiektuak idaztea izango dira bere ardurarik garrantzitsuenak.

Gainontzeko profesionalen funtzioak ere nahiko ondo diseinatuta daudela esango genuke. Inork ez dauka behar baino funtzio eta pisu gehiago eta dependentziak ez dira aurrikusitakoa baino handiagoak.

Profesionalekin amaitu baino lehen, ELGOIBARKO IZARRAn profesionalek duten tratu paregabea azpimarratu nahi genuke. Beste oso leku gutxitan dauden baldintzetan egiten da lana gure Elkartean. Orain arte behin-behineko erabakiekin konpondu izan bagara ere (ondo hala ere), 95ean langile profesionalen egoera normalizatu eta definitu genuen. Langileentzako benetan egoera ona dela uste dugu.

Akaso horregatik izango da langile profesionalek orain arte eskaini duten lan profesional-militantea. Benetan gustura egiten da lana gure Elkartean eta hori emaitzetan isladatzen dela iruditzen zaigu.

91n langile bat zegoen tokian, 96an zortzi eguneroko eta 40 aldizkako dauzkagu. Elkarrea mamin-tzen eta gorpuzten ari den seinale garbia dira kopuru hauek.

8. MILITANTEAK:

Aurrekoak garrantzitsuak badira Elkarrearentzat, hauek are eta garrantzitsuagoak dira. Elkarrea militantei esker bizi da eta hala bizi behar du aurrerantzean ere. Militanterik gabe ez dago ELGOIBARKO IZARRArik, hauek dira Elkarteko arnasa eta odola.

Sei urte hauetan 54 militante inguru izan ditugu Elkarrearen bueltan. Badakigu gaurko gizartean gero eta zailagoa dela lan militantea baina Elkarreak ahalegin horretan segitu behar du aurrerantzean ere. Giltza militanteek euren lanak zerbaiterako balio duela ikustean dago, horrela ez bada militanteek alde egiten dute lehenago edo beranduago.

Amaitzeko militante eta profesionalen arteko harremani buruz pare bat gauza esan nahi genuke: Bata, bien artean benetako elkarlana eta harreman ona egon behar duela. Biek ulertu behar dutela txanpon beraren bi aurpegiak direla. Bata ez dela ezer bestea gabe eta alderantziz.

9. INFORMAZIO TRASMISIOA:

Lehen ere idatzi dugu nonbait, Elkartera jendea erakartzeko eta Elkartea jendearengana hurbiltzeko, ezinbestekoa dela informazio transmisioan asmatzea.

Herritarrek jakin egin behar dute ELGOIBARKO IZARRA zer den eta zertarako dagoen. Jakin egin behar dute zer egiten duen eta egiten duena zergatik egiten duen. Jakin egin behar dute egiten duena zergatik egiten duen horrela eta ez beste era batera. Jakin egin behar dute...

Baina, lortu al dugu informazio hori transmititzea? Elkarteko bazkideek ba al dute Elkarteari buruzko nahikoa informazio? Herritarrek ba al dakite Elkartea zertan ari den?

Gure iritzia ezetz da, ez dugula asmatu bazkideengana eta herritarrengana iristen. Distantzia handia dagoela Elkartearen egungo nukleoa osatzen dugunon eta bazkideen/herritarren artean.

Baina, zein da informazioaren nahikotasun maila? Bazkide bakoitzak Elkartearekin gustura dagoen ala ez esateko argumentu/informazio nahiko duenean esango dugu nahikotasun maila egon dela. Identifikazioa edo/eta atxikimendua alde batetik, edo erretxazoa bestetik sortzeko besteko informazio duenean ematen da nahikotasun maila. Zoritxarrez, gaur egun ez bata eta ez bestea ez dago bazkide asko eta askoren artean. Ez dago informaziorik eta beraz usteekin juzgatzen da (juzgatzen bada!) Elkartearen jarduna.

Informazio transmisioan asmatu beharra daukagu Elkartea zabaldu eta bere eragin soziala handitu nahi badugu. Gainera, 94ko ikerketan garbi ikusten genuen bezala, jendeak Elkartearen izena ezagutzen du baina arazo handiak dauzka izana definitzerakoan.

Eta zer pasatzen da errepidearen beste norabidean?

Orain artean Elkartetik bazkideenganako informazioari buruz jardun dugu. Elkarteari buruzko informazioa nola pasa bazkideari eta herritarri. Baina, inoiz aztertu al dugu beste norabidea? Bazkideek eta herritarrek ez al dute ezer esateko Elkarteari buruz? Non galtzen dira herritarrek Elkarteari buruz esandako gauza onak eta txarrak? Zergatik ez dira Ubitarteko lokalera iristen elgoibartarren ahotan dabilzan iritziak? Bazkide bat ez badago konforme Elkarreak egindako zerbaitekin, zein bide erabili behar du bere kezka Elkarteari helarazteko?

Goazen informazio transmisioaren bi norabide hauek nola landu ditzakegun aztertzerara:

9.1. ELKARTETIK HERRITARRARENGANA:

Ikus dezagun zein diren herritarrengana iristeko irizpideak:

9.1.1. BAZKIDEAK:

ELGOIBARKO IZARRA bazkidez osaturiko elkarte bat denez, bazkideei zor diegu informaziorik zehatz eta puntualena. Bazkideek lehentasuna izan behar dute Elkarteari buruzko informazioa jasotzerakoan. Hori horrela dela jakinda, urtero Bazkideen Urteko Batzar Orokorra egiten dugu. Bertan Elkarteari buruz inon ematen den informazio zabal eta zehatzena ematen da. Alabaina, aurretik esan bezala, Batzarrera oso bazkide gutxi joaten da. Beraz, Batzar Orokorrak ez du bere funtzioa betetzen.

Batzar Orokorra jendea joaten ez zela ikusita, Izarren Hautsa Berripapera argitaratzen hasi ginen. Urtean behin Elkarteari buruzko garrantzitsuena banatzen diegu bazkide guztiei. Nahiko informazio al da? Jendeak irakurtzen al du?

9.1.2. EUSKALDUN OSOAK:

Helburuak aztertzen ditugunean, hasierako helburuetako bat Elgoibarko euskaldun osoak Elkartearen bueltan biltzea dela aipatzen dugu. Nahi duguna lortzeko ezinbestekoa da euskaldun osoak proiektu honekin bat etortzea. Egun Elkartearen inguruan ez dauden euskaldun osoengana iritsi behar dugu. Informazioa transmititu behar diegu guregana erakarri nahi baditugu.

Beraz, batetik, Elkarteko bazkide diren euskaldun osoengana zuzenean iritsi behar dugu dauden baino urrerago egon daitezen aurrerantzean. Bestetik, oraindik bazkide ez diren euskaldun osoengana iritsi behar dugu eurak ere proiektu honetan lagun izan daitezen.

9.1.3. HERRITARRAK:

Azken finean Elkarteak Elgoibarko gizartea aldatu nahi du, hau da herritarrei orokorrean zuzenduriko proiektu bat da. Herritarrentzat eta herritarren onerako denez, jakinaren gainean egon behar dute. Jakin egin behar dute zer egiten ari garen eta zer lortu nahi dugun. Orain arte BARREN eta komunikabideak izan dira herritarrengana iristeko erabili izan ditugun bideak.

Kasu honetan informazioa nahikoa dela esatera ausartuko ginateke. Aurrerantzean ere bide eta intentsitate bera mantenduko dugu herritarrei dagokienean.

9.1.4. SEKTORE KONKRETUAK:

Plangintza edo proiektu zehatzak prestatzen ditugunean, herriko sektore konkretuengana iristen gara. Aisialdi proiektuarekin haur, guraso eta irakasleegana iristea lortu dugu, Gurean Bai Hitzarmenarekin elkartetako jendearengana, 'Alkate eta zinegotzien ejenplua nahi dugu' kanpainarekin politikoengana, eta abar. Plangintza konkretuak izaten dira eta informazio esparrua ere konkretua da.

Atal honetan azkenerako laga ditugu erdaldunak, Elgoibarren bizi diren erdaldunak. Guk eraiki nahi dugun hizkuntz komunitatean erdaldunek ere tokia izango dutenez, erdaldunengana iristea lortu behar dugu. Trasmittitu egin behar diegu zer den guk nahi duguna, galdetu egin behar diegu zein den euren parezera. Orain arte hain gutxi landu den trasmisio bide hori, epe ertainera landu egin beharko dugu.

9.2. HERRITARRENGANDIK ELKARTERA:

Orain arteko norabidea Elkartetik abiatutako izan da. Baina informazioak beste norabidean ere izan behar du. Bazkideek, euskaldun osoek, herritarrek, ... Elkartearekin kontaktatzeko aukera izan behar dute. Euren kezka, zalantza eta iritziak kanporatzeko beta eskaini behar die Elkarteak.

Honekin asmatzea ere oso garrantzitu izango da Elkarte eta herritarren arteko feed-back-a lortzeko.

Nola lortuko dugu herritarrak Elkartearekin komunikazioan jartzea?

ZERTAN EZ DUGU ASMATU?

Atal honetan ElkarTEak bost urte hauetan izan dituen hutsuneak aztertuko ditugu. Zertan ez dugun asmatu jakiten ahaleginduko gara bi helbururekin:

- Gaizki edo oker dauden gauzak zuzentzeko edo/eta hobetzeko.
- Aurrera begira oker berdinak edo antzerakoak ez errepikatzeko.

Gainera autokritika oso ariketa osasuntsua dela iruditzen zaigu. Guk badakigu intentzio onena jartzen duenak ere huts egiteko arriskua izaten duela, eta gu ez garela salbuespen bat. Ez digu inolako lotsarik ematen gaizki egin duguna identifikatzeak, areago oraindik, autokritika honek mesede handia egingo digu etorkizunean. Eta etorkizuna da hain zuzen ere inporta zaiguna.

Beraz, ikus dezagun zertan ez dugun asmatu eta zergatik huts egin dugun:

1. EUSKALDUNON ATOMIZAZIOAK HOR DARRAI:

Bai, bospasei urteotako lorpenak azertu ditugunean, ElkarTEa euskaltzale askoren erreferentzia puntu bilakatu dela aipatu dugu. Halere, euskaltzaleon atomizazioak hor segitzen duela ere esan dugu. Gure ustetan ez dugu atomizazio hori apurtzea lortu. Ez dugu, bere osotasunean, Elgoibarko euskaltzaleen bilgunea eraikitzea lortu, ELGOIBARKO IZARRA ez da oraindik herriko euskaldunen eta euskaltzaleen ELKARTEA. Oraindik euskaltzale asko dago bakoitza bere bidetik dabilena aldamenekoaren berririk gabe eta txarragoa dena, aldamenekoarekin elkartzeko inolako asmorik gabe. Baina zein da honen arrazoa? Gezurra al da euskaldunok batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuago dela?

Arrazoiak aztertzen hasita, guk hiru arrazoi nagusi azpimarratuko genituzke:

- **Politikaren pisua:** Politikatik sortutako taldeak oso itxiak dira kasu gehienetan, eta zaila suertatzen da bi alderditako euskaltzaleak biltzea. Egungo egoera politikoak ez du batere errazten ElkarTEaren lana, jendeak alderdiaren interes politikoak euskararen interesen aurretik jartzen baititu kasu askotan.
- **Herri mailako arazoak:** Gero sakonago aztertuko badugu ere, Ikastolaren auziak min handia egin dio ElkarTEari. Ikastolaren auziak bitan banatu ditu euskaldun asko eta honek bere eragina izan du Elgoibarko euskalgintzan.
- **Hirugarren arrazoa informazio hutsunean egon daiteke.** Euskaldunon atomizazioarekin amaitzeko, euskaldungoa konpaktatzeko arrazoiak plazaratzea ezinbestekoa izango da. Azaldu egin behar dugu ElkarTEa zer eta zertarako den.

Gainera ElkarTEko bazkideon artean ere ez dugu behar besteko konpaktazioa lortu. 30-35 lagunen konpaktazioa lortu badugu ere, ezin dugu gauza bera esan 620 bazkideok osatzen dugun ElkarTEari dagokionean. Bazkide asko eta asko ezagutu ere ez ditugu egiten eta beste askorekin ez dugu inolako harremanik izan bost-sei urteotan. 620 laguneko kuadrila bat osatzea ezinezkoa dela badakigun arren, egungoa baino harreman estuagoa lortu beharko dugu bazkideon artean.

2. ELKARTEAREN IZANA EZ DUGU ONDO TRASMITITU:

Elkartek ezin du euskaldunon atomizazioa geratu jendeak ez badaki zehatz-mehatz ELGOIBARKO IZARRA zer den. 94ko ikerketan ondo ikusten genuen bezala, jendeak badaki ELGOIBARKO IZARRA badagoela baina arazo handiak dauzka hau definitzerakoan. Hau horrela izanik, jendea nola konpaktatuko da ezagutzen ez duen zerbaiten bueltan? Atomizazioa geratzeko, Elkartearen inguruan konpaktatu behar du euskaltzaleak, eta horretarako ezagutu egin behar du Elkartea, jakin egin behar du zer den eta zertarako dagoen.

3. EUSKALDUN OSOAK ELKARTERA HURRERATU GABE SEGITZEN DUTE:

Helburuak aztertzen ditugunean, euskaldun osoak Elkartearen bueltan biltzearen garrantzia azpimarratzen dugu. Euskararentzat oso garrantzitsua da Elgoibarko euskaldun osoak elkartzea. Oraindik euskaldun oso dexente dago Elkartearekin harremanik izan ez duena eta hau gure helburuen kontra doa. Hasteko Elgoibarko euskaldun osoak identifikatu behar ditugu (zerrendak eginda besterik ez bada), eta gero eurekin egon behar dugu gure proiektua zein den azaldu eta euren iritziak ezagutzeko. Azken helburua euskaldun oso hauek Elkartera erakartzea da, eurak ere egile eta eragile izateko.

4. ELKARTEA KALETIK URRUTI IKUSTEN DA:

‘Nik ELGOIBARKO IZARRA kaletik urrutik ikusten dut, badakit hor dagoela baina urrutiko zerbait bezala ikusten dut, ezkutuan balego bezala’. Hitz hauek Elkarteko lantalde batean dagoen bazkide batek esandakoak dira. Ez al dugu asmatu kalera bajatzen? Bulego eta lokal itxietan geratzen al da gure lana eta zeregina?

Lan asko eta ona egin dela ez dugu zalantzarik, baina lan hau kaletik urruti geratu zaigula somatzen dugu. Ez dugu kaleko presentziarik lortu, jendeak ez du Elkartea kalean ikusi, Elkartearen eragin sozialak huts egin du kaleari dagokionean.

Bospasei urte hauetan hainbat proiektu jarri ditu martxan Elkarteak baina denak ‘barrukoak’ dira, ez dute loturarik kalearekin.

5. KULTUR SUSTAPENA MOTZ GERATU ZAIGU:

Arrazoiak lehen ere aipatu baditugu ere, proiektu honetan profesionalik ez izatea izan daiteke kultur eskaintza motz geratzearen arrazoiak. Egin duguna benetan txukun eta ondo egin dugu baina kultur esparru dexente geratu zaigu landu gabe. Gainera, oso argi daukagu kultur eskaintza dela Elkartearen bihotz taupadak bizirik mantendu behar dituenak. Zoritxarrez, sei urte hauetan hilabete asko pasatu zaigu inolako kultur ekimenik gabe.

Kultur eskaintza ezak Elkartea itzalpera eramaten du, jendeak ez du Elkartearen berririk eta gizartearen lekua eta protagonismoa galtzen doa.

Elkartearen gainontzeko proiektuak batez ere ixilpean burutzekoak direnez, kultur eskaintzak bermatu behar du Elgoibarko gizartean Elkartek leku garrantzitsu bat izatea.

Amaitzeko, ikus dezagun landu gabe edo oso gutxi landu ditugun kultur esparruak:

- Hitzaldiak.
- Ikuskizunak.
- Tailerrak eta eskolak.
- Erakusketak.
- Ikerketak.
- Ohitura zaharrak.
- Euskal folklorea.
- Historia.
- Beste herriekiko kultura eta harremanak.
- Motibazioa eta jaia.

6. KOMUNIKAZIO FALTA: ELKARTEA ETA HERRITARRAK.

Aurreko atalean funtzionamendua aztertu dugunean, informazio transmisioak huts egin digula aipatu dugu. Ez dugu Elkartea eta herritarren arteko komunikazioan asmatu, eta hutsunea bi norabideetan izan da:

- Elkartetik herritarrengana.
- Herritarrengandik Elkartera.

Hutsune honen garrantzia lehen ere aztertu dugunez, ez gara hemen gehiago luzatuko. Hurrengo atalean komunikazio hau hobetzeko proposamenak landuko ditugu.

7. BATZAR OROKORRAK:

Batzar Orokorrek bete behar duten funtzioa ere ez dugu bete. Batzarrak oso ondo prestatuta egon dira baina bazkideak ez dira hurreratu. Ikus hurrengo atalean arazo hau bideratzeko proposamenak.

8. ZUZENDARITZA BATZORDEAK:

Elkartearen organorik garrantzitsuena dela esan dugu arestian. Zuzendaritza Batzordeari daukan baino garrantzia eta botere gehiago ematea derrigorrezkoa izango da gauzak ondo bideratzea nahi baditugu.

9. SUSPERTZAILEAREN DEPENDENTZIA:

Urteak aurrera egin ahala gauzak onera badoaz ere, oraindik ere azti ibili behar dugu dependentziarik ez sortzeko. Ez suspertzailearekin eta ez beste inorekin. Elkartean DENOK izan behar dugu beharrezkoak baina inor ere ez ezinbestekoa.

**EPE MOTZ ETA
ERTAINERAKO LAN
ESPARRU BERRIAK
ETA
ZUZENDU-HOBETU
BEHARREKO
HAINBAT GAUZA**

Atal honetan bi arlo landuko ditugu:

1. Epe motz eta ertainerako lan esparru berriak: Helburuak eta filosofia kontutan izanik, orain arte landu ez ditugun hainbat lan eremu lantzen hasiko gara. Hauek zein diren eta zergatiak ikusiko dugu.

2. Zuzendu edo hobetu beharreko hainbat gauza: zertan asmatu ez dugun ikusi dugunez, 'oker' hauek zuzentzen ahalegindu beharko dugu. Okerrak zuzentzeko edo hobetzeko proposamenak landuko ditugu.

1. EPE MOTZ ETA ERTAINERAKO LAN ESPARRU BERRIAK:

1.1. EUSKARAREN EZAGUTZA LANDU:

Orain arte erabilera izan da batez ere gehien landu duguna. Erabileraren aldeko ahaleginak bere horretan segituko badu ere, ezagutzari ere lekua egiten hasi behar dugu. Ezagutza honako esparru hauetan landuko dugu:

1.1.1. Helduen euskalduntze-alfabetatzea:

Euskaltegiekin elkarlanean esparru hau indartzeko ahalegina egin nahi dugu. Izan ere, zoritxarrez, oraindik jende asko dago Elgoibarren euskaraz ez dakiena edo euskara erdipurdi dakiena. Batzuk euskarara hurreratzea eta besteak euren euskara aberastea izango da helburua. Dagoeneko proiektua idatzita dago eta laster batean martxan jarriko dugu.

1.1.2. Kantitatea eta kalitatea:

Euskararen kalitatea kontutan hartzen hasi behar dugu. Zenbat euskaldun garen ezeze, garenok zernolako maila daukagun ere neurtu behar dugu. Egia al da euskara maila jaisten ari dela? Zenbat eta zergatik? Nola eman diezaiokegu buelta honi? Serio aztertzeko gai bat izango da honako hau.

1.1.3. Gurasoen hizkuntz transmisioa.

Ezagutzaren ontziarekin amaitzeko, Elgoibarko gurasoengana iritsi behar dugu, gurasoen hizkuntz transmisioak duen garrantzia azaltzeko. Motibazio kanpainak jarri beharko ditugu martxan haurren hizkuntz bilakaeran gurasoek duten papera zein den azaldu eta gurasoak euskararen aldeko jarrean jartzeko.

1.2. KULTUR ESKAINTZA SUSPERTU:

Lehen ere esan dugu kultur eskaintza serio eta iraunkorra ezinbestekoa dela Elkartek bere helburuak betetzeko. Orain arte egin dugunaz baliatuz, indartu egin behar dugu Elkarteen kultur proiektua. Kultur proiektu honek, besteak beste, bi helburu konkretu hauek ere izan behar ditu:

- **Euskararen motibazioa:** Elgoibarren euskararekiko motibazioa ona bada ere, horrela agertzen da ikerketa guztietan, motibazio hau lo dagoela esatera ausartuko ginateke. Lozorroan dagoen motibazio hori esnatzea izango da kultur proiektu honen helburuetariko bat. Horretarako oso paper garrantzitsua eman beharko diogu JAIAri eta TALDE zentzuari. Bi funtzio hauek behar bezala betetzen asmatzea izango da gure lana.

- **Kalea eta Elkartea:** Bigarren helburua kalea eta Elkartea uztartzea da. Egoera lehen aztertu dugunez, bi elementu hauen artean dagoen distantzia gutxitzea izango da gure zeregina.

1.3. ERDALDUNAK EUSKARAREN MUNDURA:

Helburuak aztertzen ditugunean, hizkuntz komunitate bakarra osatu behar dugula aipatzen dugu. Hizkuntz komunitate honetan erdaldunek ere tokia izango dutela esaten dugu eta erdaldunekiko helburuak hiru direla:

- Elkarteen helburuak eta nahiak zein diren azaltzea erdaldunei. Euren tokia zein den ikustaraztea.
- Erdaldunak euskarara erakartzea hizkuntz komunitatean erdigunerantz joan daitezen.
- Euskarara hurreratzeko aukerarik ez duten erdaldunei euren seme-alabei euskararako bidea errazteko gonbitea luzatzea.

Euskaldungoa konpaktatzea lortzen dugunean, erdaldunengana iristea lortu beharko dugu gure proiektua zein den azaltzeko.

Lan eremu berri hauek noiz eta nola lantzeko ardurua suspertzaileak hartzen du bere gain beti ere, Zuzendaritza Batzordearen esanetara eta aholkularitzapean.

2. ZUZENDU EDO HOBETU BEHARREKO HAINBAT GAUZA:

Atal hau gutariko bakoitzak aztertzeko izango da, denon aportazioekin osatuko dugu. Izan ere, jarraian datozen puntuak orain arte kale egin ditugunak edo bete-betean asmatu ez ditugunak dira. Beraz, oraingoz aipatu baino ez ditugu egingo eta denon artean topatu beharko dugu soluziorako bidea.

2.1. EUSKALDUNGOAREN ATOMIZAZIOA GERATZEKO URRATSAK:

- Zer egin behar dugu euskaldungoaren atomizazioa gelditzeko?
- Posible al da alderdi desberdinetako euskaltzaleak hemen biltzea?
- Ikastolaren auziak sortu dituen bi aldeak batzeko esperantzarik ba al dago? Nola?
- ...

2.2. EUSKALDUN OSOAK IDENTIFIKATU ETA ERAKARRI:

- Euskaldun osoen zerrendak egin behar al ditugu?
- Eurekin egon behar al dugu banan-banan?
- Eragozpenik ipiniko al du jendeak? Zergatik?
- ...

2.3. INFORMAZIO TRASMISOA BI NORABIDETAN:

- Nola iritsi behar du Elkarteak bazkideengana? Eta herritarrengana?
- Eta bazkideek Elkartera? Eta herritarrek?
- ...

2.4. BAZKIDEON ARTEKO HARREMANAK HOBETU - KONPAKTAZIOA:

- Baina nola?

2.5. FUNTZIONAMENDUARI DAGOKIONEAN:

- Batzar Orokorra: Zer egin behar dugu Batzar Orokorretara jendea eramateko? Alferrikako lana al da? Kendu egin behar al dugu? ...?
- Zuzendaritza Batzordea: Zer egin behar dugu Zuzendaritzak guk nahi dugun pisua eta funtzioa izan dezan? Nola indartu behar dugu? ...?

Gai hauek gutariko bakoitzak landu behar ditu, gero Eremu Sinbolikoaren 5. Batzarrean taldeka aztertuko ditugu eta handik proposamenak jasoko dira. Ondoren, hobekuntza-Zuzenketa prozesu hau bideratzeko BATZORDE bat eratuko dugu. Urritik otsaila bitartean gai hauei zein irtenbide eman erabakiko du Batzordeak. Gero, Eremu Sinbolikoa bilduko da Aste Santu aurretik dena ondo ikusi eta egin behar denari argi berdea emateko.

**HERRI MAILAN
IZAN DIREN
ALDAKETAK**

Elkartea ez zela desagertu behar 90ean erabaki zenetik, aldaketak bai Elkartean eta bai herri mailan izan dira. Atal honetan, euskalgintzan eragina izan duten herri mailako hainbat puntu azaltzen ahalginduko gara.

Ikus dezagun gure ustetan aintzakotzat hartu eta kontutan izateko hainbat aldakuntza eta bilakaera:

1. IRAKASKUNTZA GURE ALDE: Euskal ereduak gorantzako bidean:

Euskal ereduaren aldeko bilakaera lehenagotik datorren zerbait bada ere, azken bost urte hauetan nabarmen antzeman da egindako lanaren fruitua. A ereduak desagertu da 0-14 urte bitarteko ikaslearen artean eta ertainetan ere gero eta gehiago dira euskal ereduaren ikasten ari direnak (% 48a D ereduaren eta % 8a B ereduaren).

Datu hauek oso kontutan hartzekoak dira Elgoibarko euskalgintzan. Aurrerantzean euskara ikasi gabe Elgoibarren inor ez dela geldituko esan dezakegu, nahiz eta jakin denek ez dutela euskara maila bera lortuko eta oraindik batzuk minimoen azpitik ere geldi daitezkeela.

Garrantzitsuena lehen harría jarri dela da, A ereduak desagertzea. Hurrengo pausoa ertainetan beste horrenbeste lortzea izango da. Horretarako zutabeak ere ipinita daudela iruditzen zaigu. Bestela konparatu Institutuko orain 15 urteko datuak eta oraindik.

Ereduei dagokienean ezezik ikastetxeen euskararekiko jarrera orokorra ere hobertu doala iruditzen zaigu. Denetan somatzen dugu lehen baino jarrera hobea.

2. FAMILIA, ezagutzaren zutabe garrantzitsuena?:

Familia dugu edozein hizkuntzaren transmisioa bermatzeko esparrunik naturalena. Bera da, hain zuzen ere, transmisio naturala berma dezakeen bakarra. Zoritxarrez orain arte batxe bat ezagutu dugu arlo honetan. Izan ere, haurren gurasoak izan direnak gaztetan euskaraz ikasteko suertirik izan ez zutenak izan dira. Eskolaren eraginez eta bizi izan zuten giroak eraginda, asko eta asko euskara galteraino iritsi dira. Hauen seme-alabek ordaindu izan behar dute euren gurasoek bizi izan zuten zoritxarra. Zulo beltz horretatik irteten ari garela esan dezakegu. Orain gurasoak direnak (30 urte ingurukoak), gehiago edo gutxiago euskaraz ere ikasi zuten eta euskara ezagutza maila ona ematen da guraso hauengan. Haurrei euren hizkuntz transmisioa gauzatzeko beste bai behintzat.

Halere, denok ondo dakigun bezala, jakitea ez da nahikoa izaten. Oraindik gurasoei hizkuntz transmisioaren garrantzia helarazi behar diegu, euskal ereduaren matrikulatzea ez dela nahikoa ikusi behar dute.

3. UDALA ETA POLITIKARIAK mugitzen hasi dira?

Ezagutza alde batera lagata, pasa gaitezen Administrazioa aztertzeraz. Urteetan zehar Elgoibarko Udala ez da nabarmendu euskararen alde egin duen lanarengatik, eta hasierako urteak nahiko lotan pasa bazituen ere, azken bost urteotan esnatze fase batean dagoela esango genuke. Ikus dezagun non nabaritzen dugun esnatze prozesu hori:

- . Egoeraren diagnostia egiteko SIADECO kontratatu zuen diru dexente gastatuz.
- . Diagnostiaren ostean, Udalaren eta herri mugimenduaren arteko funtzio banaketa onartu zuen.
- . Elkarteari bere funtzioak bete ditzan laguntza osoa eskaini dio.
- . Udalak bitartean, bere bidetik segitu du: Hizkuntz perfilak landu ditu batez ere, hau da ezagutza.
- . Euskararen aldeko Udal Ordenantzak onartu ditu.
- . Eskuarrean erabilera plangintza dauka datozen lau urteotan martxan jartzeko.

Badirudi poliki-poliki Udala ere konturatzen doala bere funtzioaz. Politikoak ere, batzuk behintzat, esnatzen hasi direla ematen du. Eta batzuk aparteko gauzarik egiten ez badute ere, besteoi lagatzen eta laguntzen digute egiten. Eta hau ez da gutxi! Esandakoarekin norbait konforme ez badago, Euskal Herriko hainbat Udaletako egoera ezagutzeko gonbitea luzatuko genioke. Hobeak ikusiko ditu baina ziur egon Elgoibarko Udalaren azpitik daudenak askoz gehiago izango direla.

4. IKASTETXEEN ARTEKO LEHIAREN zipristinak:

Duela hamabost-hogei urte haurrak soberan zeuden. Herrian lau ikastetxe ere egon dira eta baina denak lasai bizitzeko beste haur zegoen. Gurasoek aukera zabala zuten eta euren gustuen arabera egiten zuten aukeraketa. Alabaina, egoera aldatu egin da. Gero eta haur gutxiago jaiotzen da eta ikastetxeen arteko konpetentziak Elgoibarko bazterrak astindu ditu. Orain hiru ikastetxe daude eta lehia gogorra dago haurrak bakoitzak berera erakartzeko. Guri hiru ikastetxeetako hurrekin lana egitea tokatzen zaigunez eta guretzat denak berdinak direnez, izan dugu arazo bat edo beste. Arazo hauek batez ere bi esparrutan nabaritzen ditugu: BARRENen eta Atxutxiamaikan. BARRENen kontu handiz ibili behar izaten dugu ikastetxeei buruzko informazioa ematerakoan. Denak begi zorrotze-kin egoten dira zer eta nola esaten dugun aztertzeko. Ondorioz, kritikak ere dexente izan direla esan dezakegu. Atxutxiamaikari dagokionean, berriz, haurrak nahastu ala ez, batzuen eta besteen euska- ra maila eta antzerakoak izan dira entzun ditugunak.

Batean Ikastolaren alde gaudela, hurrengoan Herri Eskolaren aldeko apostua egin dugula,... beti dago zeinek zer leporatu.

Ikastetxeen artean dagoen lehia egongo ez balitz, seguruenik ez genuke liskar-zipristin horiek sufri- tu beharko, baina egoera den bezalakoa da eta datorrenari aurre egoteko prest egon beharko dugu.

5. IKASTOLA PUBLIKOA ALA PRIBATUA?

Azkenerako laga dugu Ikastolaren gaia. Ezertan hasi aurretik pare bat ohar:

- . Elgoibarko Ikastola Elkartetik sortu zen.
- . 93. urtea arte Elkartea Ikastolako Junta Errektoran egon da.
- . 93an Elkarreak idatzi bat luzatu zion Ikastolari Ikastola barruan funtziorik ez zuela adieraziz eta baja emateko eskaria luzatuz. Hala onartua izan zen eta Ikastola eta Elkartearen arteko lotura organikoa eten zen.

94an Ikastola publiko edo pribatu izateko prozesua zabaldu zen. Euskal Herriko herri gehientsuenetan bezala, Elgoibarren ere ez zen prozesu baketsua izan. Eztabaidak, gaizkiesanak eta berotasun gradu altua izan zen. Eta horrelakoetan gertatzen den bezala, bi bloke nabarmendu ziren:

- . Ikastola pribatuaren aldekoak.
- . Ikastola publikoaren aldekoak.

Eta zer ikusirik dauka honek Elkarrearekin? Ikastola publikoaren aldeko irakasle eta guraso asko Elkartearen dinamikan inplikaturik zeudela eta daudela. Honek ondorio garbia ekarri zuen pribatuaren alde zeuden askorentzat:

- . ELGOIBARKO IZARRA Ikastola publikoaren alde dago.

Elkarreak prozesu osoan txintik ere esan eta egin ez bazuen ere, herritar batzuek eztabaidaren alde batean kokatuko zuten eta dute Elkarrea.

Balorazioarekin segitu aurretik gauza bat laga nahi dugu garbi. Goian aipatu ditugun irakasle eta guraso horiek Ikastolan inolako eztabaidarik piztu aurretik ziren Elkarreko militanteak. Elkarrean ez da Ikastola publikoaren aldeko jenderik sartu, lehenago Elkarreko militanteak ziren, eta Ikastolaren auzia piztu zenean, batzuek alde batera jo zuten eta besteek bestera. Egia da publikoaren aldeko jarrera hartu zutenak gehiago izan zirela baina hau kasualitate hutsa baino ez da. Ala ez? 91n Elkartera jende berria erakartzeko ate eta leihoak zabaldu genituenean, sartu zirenak sartu ziren, ez gehiago eta ez gutxiago. Eta ez ahaztu garai hartan ez zegoela Ikastolaren auzirik.

Auzi honek kalte handia egin dio ELGOIBARKO IZARRAri eta Elgoibarko euskalgintzari. Euskaltzale asko Elkarretik lehen baino urrunago dago, Elkarreak denontzako erreferentzia puntu izan behar zuena, gai honek urrutiratu egin du jendea hurreratu beharrean.

Besteak beste, Elkartea eta bertan sartuta dagoen jende asko Ikastolaren kontra dagoela entzun behar izan dugu. Gure partetik hainbat puntu argitu nahi dugu:

- . Elkarreak ez duela inolako iritzirik Ikastola publikoa eta pribatuaren eztabaidan.
- . Elkarreak berdin-berdin lan egingo duela Ikastolarekin hau pribatua zein publikoa izan.
- . Elkarreko bazkide guztiek askatasun osoa dutela gai honi buruz euren iritzia eta jarrera izateko.

Gainera, gai honek (beste gehientsuenak bezala) kutsu politikoa ere hartu du. Ikastola pribatuaren aldeko jarrera hartu zuten alderdi politikoetako jendea ere errezeloarekin begiratzen hasi da.

Elkarreak euskaltzale guztien bilgunea izan behar duenez, Ikastola pribatuaren alde (eta Elkarrea ondo ikusten ez dutenak) dauden irakasle, guraso eta herritarrekin berba egin beharko dugu. Errezeloen zergatiaz galdetu beharko diegu, zer egin duen Elkarreak Ikastola publikoaren alde dagoela leporatzeko, eta abar.

Eta barruan gaudenok kontzientzia garbi al daukagu? Egia al da Elkarreari Ikastola publikoaren aldeko jarrera ikusten zaiola? Non? (Irakurtzen ari zaren horren iritzia jaso behar dugu gai honi behin-betiko irtenbidea topatu ahal izateko. Gauzak ezkutuan edukita ez dugu ezer egingo, hobeto da elkarrri orain gauzak garbi esan (nahiz eta egiak askotan min egin) eta ilunpe honi argia ematea.

Gainontzean, gauza bat garbi izan behar dugu:

- . Horrela ezin dugu jarraitu. Elkarreak aurrera egin behar badu, denon laguntzarekin eta partaide-tzarekin egin behar du. Euskaltzaletasunari dagokionean Elgoibarren ezin dira bi bloke egon, bat egonda ere nahikoa lan izango baitugu guk nahi duguna lortzeko.

Beraz, arlo honetan Elkarreari buruzko errezelo guztiak jaso eta hauek argitzeak izango du lehentasuna. Eta arazo hau berandu izan baino lehen konpontzea izango da onena.

**ELKARTEAREN
JARDUEREN
KRONOGRAMA
(92-96)**

Balorazioarekin amaitzeko Elkartek 5 urte hauetan egindako garrantzitsuenaren kronograma ikusiko dugu. Horretarako urtez-urte egindakoa azalduko dugu, hilabeteak bereiztuz:

1. 92. URTEA:

URTARRILA:

- Elkartearen ezagutza kanpaina: tarjetak, triptikoak eta pegatinak.
- Juan Mugerza krosean irriti eta prentsan publizitatea.

APIRILA:

- Elgoibarko II. Duathloian Elkartearen pankarta.
- Herri Irratian 'Kulturaren bila' irratsaioan publizitatea.

MAIATZA:

- Errotatxo Elkartek eskatuta stand-a.
- Soziolinguistika ikastaroa: Elkartekoentzat.

EKAINA:

- ARGIAren aldeko mahaia.
- Ez dok amaitu!
- Ikastolen aldeko autobusak.

ABUZTUA:

- San Bartolome jaietan publizitatea prentsan.

IRAILA:

- Eremu Sinbolikoaren I. Batzarra.
- Bertso-Eskola.
- 'Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak'.
- Euskaldunon Trena.

URRIA:

- 'Elgoibarko haurren euskalduntze prozesuaren oinarri teorikoak' lan teorikoa: Elena San Martinek egina.
- Astekariaren proiektuaren diseinua.

AZAROA.

- Euskal Tonbola.
- Astekariaren proiektuaren aurkezpenak.

ABENDUA:

- Egunkariaren aldeko jairako autobusa.
- Nagusien Etxegiña Bertso Paper Lehiaketa.
- Haurren Olentzeroa.
- Gabonetako bertso jaialdia.
- BARREN astekariaren 0 alea.
- BARRENen 0 alean publizitatea.

2. 93. URTEA:

URTARRILA:

- SIADECOK egindako ikerketaren azterketa.

OTSAILA:

- Bazkideen Urteko Batzar Orokorra.
- 'Izarren Hautsa' Berripapera.

MARTXOA:

- Euskal ereduaren aldeko kanpaina.

APIRILA:

- 'Elgoibarko haurren euskalduntze prozesuaren oinarri teorikoak' lanaren aurkezpena OHOkoko hiru ikastetxeetan.

EKAINA:

- Ez dok amaitu!
- Ikastolen aldeko autobusak.

UZTAILA:

- UEUn Elkarteari buruzko hitzaldia.
- UEUn hitzaldia BARRENEkoek.

IRAILA:

- Eremu Sinbolikoaren II. Batzarra.
- 'Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak'.
- Bertso Eskola.

URRIA:

- Soziolinguistika ikastaroa: irikia.

AZAROA:

- Euskal Tonbola.

ABENDUA:

- Gabonak Bertsotan.
- BARREN Sariak.
- Haurren Olentzeroa.

3. 94. URTEA:

URTARRILA:

- Gurean Bai Hitzarmenaren diseinua.

OTSAILA:

- Santa Ageda eskea.
- Udala eta Elkartearen arteko Hitzarmena.
- Bazkideen Urteko Batzar Orokorra.
- Izarren Hautsa Berripapera.
- Bertso afaria: San Lorentzo.

MARTXOA:

- Euskal ereduen aldeko kanpaina.
- Begirale ikastaroa.
- Mahaingurua: 'Sexu diskriminazioa'.

APIRILA:

- Bazkide fitxak.
- Hiru urteko aisialdi plangintzaren diseinu eta aurkezpenak.
- kirolBARREN.

MAIATZA:

- Errotatxo elkartearen Prebentzio Astea.
- Egunkariaren aldeko akzio erosketa.
- Gurean Bai Hitzarmenaren aurkezpenak entitateetan.
- TAUPADAREN emanaldia.
- Mahaingurua: 'Larunbat arratsaldeak Elgoibarren'
- Gazteentzako Bertso Txapelketa.

EKAINA:

- Ikastolen aldeko autobusak.
- Ez dok amaitu !
- Bertso afaria: San Pedro.
- 'Debaldeko Festa' telebista saiora irteera.

UZTAILA:

- Udako argazki lehiaketa: BARREN.

IRAILA:

- Elkarteari buruzko ikerketa soziologikoa.
- Eremu Sinbolikoaren III. Batzarra.
- 'Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak'
- Laiotz literatur aldizkaria.
- Bertso Eskola.
- Bertsoa afaria: San Migel.

URRIA:

- Sukaldaritza naturista-bejetarianoa.

AZAROA:

- Begirale Zuzendari ikastaroa.
- Mahaingurua: 'Jubilatuekin berbetan'
- Euskal Tobola.

ABENDUA:

- BARREN Sariak.
- Gabonak Bertsotan.
- Haurren Olentzero.
- Gabonak euskaraz.

OHARRA: Zerrenda honi Begirale Taldearen zerbitzuak gehitu behar zaizkio.

4. 95. URTEA:

OTSAILA:

- Santa Ageda eskea.
- 'Alkate eta zinegotzien ejenplua nahi dugu' kanpaina.
- Bazkideen Urteko Batzar Orokorra.
- Udala eta Elkartearen arteko Hitzarmena.
- Ihauteri festa!

MARTXOA:

- Euskal ereduen aldeko kanpaina.
- KORRIKA 9.
- Ales Arrietari despedida.
- Soziolinguistika ikastaroa Eibarren.
- BARRENeN 100. alearen ospakizunak.

MAIATZA:

- Mahaingurua: 'Alkategaiak herriaz berbetan'
- Errotatxo elkartearen Prebentzio Astea.
- Elkarteari buruzko ikerketa soziologikoaren azterketa eta aurkezpena.
- Begirale zuzendariaren hautaketa.
- Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa.

EKAINA:

- Ikastolen aldeko autobusak.
- Hitzaldia: 'Zer egingo dut oporretan?'
- Patin Festa.

UZTAILA:

- Udaldian 95.
- BARRENeN lantaldearen afaria.

IRAILA:

- Eremu Sinbolikoaren IV. Batzarra.
- Atxutxiamaiak B.T.ren aukezpen publikoa.
- 'Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak'
- Laiotz literatur aldizkaria.
- Bertso Eskola.

URRIA:

- Gurean Bairen aurkezpena Udalari.
- Elkarteko langileei buruzko filosofia txostena.
- DUDARIPE! kanpaina.
- Bazkide zaharren fitxak gaurkotu.

AZAROA:

- Hitzaldiak: Nutrizioa.
- LARUNBATERO 95.
- '1.000 baietz!' kanpaina.
- Egunkariaren Tobola.

ABENDUA:

- Kantaldia: Hiru-Truku.
- Gurean Baiko teknikariaren hautaketa.
- Gurean Baiko Segimendu Batzordea eratu.
- GABONAK 95.
- Gabonetako bertso jaialdia.
- BARREN Sariak 95/ kirolBARREN 95.

5. 96. URTEA:

URTARRILA:

- ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK sari banaketa.
- GUREAN BAI Hitzarmenaren aurkezpen irikia.
- GIDA KOMERTZIALA.
- Herri mailako Aisialdi Batzordea.
- HANKAPALU ikastaroa Atxutxiamaikakoek.

OTSAILA:

- SANTA AGEDA eskea, baserriz baserri.
- Euskal ereduaren aldeko MATRIKULAZIO KANPAINA.
- BARRENEko publizista berriaren hautaketa.
- Ihauterietako aisialdi ekintzak.

MARTXOA:

- Bazkideen urteko BATZAR OROKORRA.
- Udala eta Elkartearen arteko HITZARMENA.
- LARUNBATERO aisialdi egitasmoa.
- Berastegiko Udalarari aisialdi zerbitzua.

APIRILA:

- BERTSO JARDUERAK: Emilio Urzelai sariketa. Bertso Eskola.
- PREBENTZIO ASTEA Errotatxo.

MAIATZA:

- IBILALDIA autobusa.
- Grafologia ikastaroa.
- Eskolarteko bertso txapelketa.
- Herri Urrats.
- Euskalkom.
- Errotatxoren prebentzio astea.

EKAINA:

- Euskal Prentsaren Jaia.
- HITZALDIA: Lurra eta lurrazpiko uren kutsadura.
- Kantaldia: OSKORRI.
- ZAZPIKI Irratian irratsaioa.
- Aisialdi zerbitzuak, Morkaikori, Ongizate Sailari eta Ikastolari.

UZTAILA:

- BARRENEko lantaldearen afaria, Orion.
- SARGOATEko erromeria.
- UDALEKU IRIKIAK aisialdi egitasmoa.
- Antzuolako Udalarari aisialdi zerbitzua.

URRIA:

- NAFARROA OINEZ autobusa.
- Eremu Sinbolikoaren 5. Batzarra.
- `Eman Euskarari Berea' kanpaina EKBrekin elkarlanean.
- ATXUTXIAMAIAKAK lokala lortzen du Muguruzako eskoletan.
- LARUNBATERO aisialdi egitasmoa.

AZAROA:

- Errotatxoren PREBENTZIO ASTEA.
- DEBAn euskara elkarte berria, gure laguntza eskaini.
- Haizea emakume taldeari aisialdi zerbitzua.

ABENDUA:

- Ikastaroa: Makilajea.
- Hitzaldiak: "Etxeko loreak eta landareak".
- Haurren Olentzero.
- Gabonetako Bertso jaialdia.
- Egunkariako egutegiaren salmenta.